

uk

113. zenbakia / 2007 otsailak 12







# IRAUPEN eski ASTEBURUA

**\*Somporteko eski estazioan (Jaka)**  
**\*Martxoaren 9tik 11ra**

Prezioa (\*)

Bazkideek eta berbalagunek 100€ | Ez bazkideek 125€

(\*)Autobusa, egonaldia (Droel Apart-hotelean), bi gosari, larumbateko afaria, forfaitak, 2 orduko ikastaroa euskaraz egunero, ekipo osoko alokairua eta aseguru.

Izen ematea

Martxoaren 2ra arte, telefonoz: 619 935 541 / 94 491 43 57  
zein posta elektronikoz: egizugetxo@yahoo.com | www.blogari.net/egizu



EGIZU Getxo Euskaldun Elkarte



## UK galeria > Lobo Altuna



Gauzen alderik ez atseginak isiltzeko joera nagusiaren kontra, egia mingarria islatzen ditu bere lanetan Lobo Altunak (Tolosa, 1967). Sosegurik eza eta galzoria, ospitale psikiatrikoak, peregrinazioak, herri kirolak, aratusteak... gai horiek jorratzen ditu aspaldian Altunak beti ere era gordinean.

Autodidakta, 1981ean murgildu zen argazkigintzan eta handik bost urtera erakusketak egiten hasi zen. Getxoko Irudi Talde gogoangarriaren bultzatzaileetako bat izan zen bera. Bere argazkiak makina bat jaialdi (esaterako PhotoEspaña) eta museotan ikusi ahal izan dira. PhotoBolsillo bilduma ospetsuan liburu bat ere argitaratu zioten eta bere maila azpimarratzeko, aipagarria da berriki argitaratu den *Historia de la Fotografía en España* liburuan tarte bat ere eskaini diotela.

Bere lanak sarean ikusteko: [www.photobolsillo.com](http://www.photobolsillo.com) edo [http://cvc.cervantes.es/actcult/fotografia/lobo\\_altuna/](http://cvc.cervantes.es/actcult/fotografia/lobo_altuna/)



Tolosako ihauteriak

«Azken batean, garena aldatzeko egiten duguna gara» Eduardo Galeano

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Agate deuna, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako etorbidea, 1950-2007.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Aintza Uriarte, A. M.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxo haserre, Mikel Martinez.
28. ARGAZKIA. Buruhandiak Algortan, 1950.
30. BERBETAN. Roberto Laiseka, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Hostoen ostean, Asier Mentxaka

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Agian film luzea. Oskar Fernandez zutabea.
43. MUSIKA. Leioako jazz eta blues zirkuitoa. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Zortzi unibertso, zortzi idazle liburua. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Getxoko kirol plana.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Jesus Mari Lazkano, Oiane Moran.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, La estacion del chocolate.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Escuela Vasca 1935, Bittor Egurola
54. AITORMENAK. Kirmen Uribe, Maitane Nerekan.



30 Roberto Laiseka



11 Aintza Uriarte

### Berbetan

Euskaltel-Euskadiko mailot laranja jantzi zuen, eta ez du orain gutxi arte erantzi, hamahiru urteko ibilbidea.



26 Manifestazioa Getxon



46 Jesus Mari Lazkano



21 Begoña Minayo



54 Kirmen Uribe



## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurola, Xabier Siltbaso, Oskar Fernández, Unai Amozaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamirua, Amaia Arriaga, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



# gugeu

## 2007ko dirulaguntzak

Lehenengo egunean erredakzioan, lan egin beharren gure burutazioak botatzen geundela, Xabier Payaren txapelaren harira, -barkatu getxoztarkeria- galdera hau bota zuen batek: zer litzateke Euskal Herria Getxo barik? Bizkaiko bertsolaririk onena daukagu, Unai Elorriaga literatur sariduna, kalimotxoia Portu Zaharreen asmatu zen, Eusko Gudariak kantaren letra Garate algortarrak asmatu zuen, Agirre lehenengo Lehendakaria bertokoa ere bai... Tamaina horretako pertsanaia bat ere bada 2007ko bigarren UK honetara ekarri dugun **Roberto Laiseka** txirrindularia. Denon memorian iltzaturik lotuko da Tourrean lortu zuen garaipen gogoangarri hura.

Baina goazen beste kontu batzuetara. *Gu geu* ataltxo hau aldizkaria diruz laguntzen duzuen irakurleoi 2007ko kuota otsailaren erdialdean bankutik pasatuko zaizuela gogorarazteko aprobetxatu nahi genuen. Asko ere bazarate dirulaguntza aldizkariaren kontuan zuzenean sartzen duzuenak. Badaezpada hona hemen gure kontu zenbakia: BBK 2095 0022 00 9102483676. Gogoratu kontua Boluntzarreta elkartearen izenean dagoela. Aldez aurretik, eskerrik asko guztioi, zuen laguntza barik nekez egingo genuke aurrera. Diruz laguntzen ez duzuenok, gogora ezazue, sekula ez dela berandu laguntzen hasteko.

Hurrengora arte lagunok, ondo ibili! 4

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua



leihatila > Maddi Albizu

## Manifestatzearen arriskuak

Kalean manifestatzea gero era ekingarria antzuegia da, akaso aldarrikapen modu gehiegi erabili dugulako gurean, batek daki. Antzina, herria, politologoek "gizarte zibila" deitzen dioten hori zen estatuaren gehiegikeria eta bidegabekeriaren kontra kaleak hartzen zituena. Orain, berriz, boterea duten alderdi politikoak eta Gobernuak, hau da, estatua bera da manifestatzeraren deitzen duena. Noren kontra baina? Bere buruaren aurka beharbada? Ibarretxe lehendakariari babesa ematearen deitutako manifestazioa horren adibidea da. Bakarrik espero dut Ibarretxeren erregubetasuna aldarrikatzeraren kalera irteteko deia egiten duten alderdi politikoek milaka getxoztarrak Getxoko Andra Mari auzorako dauden egitasmoen kontra kaleetan zehar botatuko oihuei eta eurek egun bat beranduago Bilboko kaleetan barrena botatuko pareko zilegitasuna ematea eta, noski, oiheriek kontuan hartzea. Beraienak norbaitek kontuan hartzea nahiko luketen modu berean. Baina ez dut uste. 4



ALGORTA, 2007KO OTSAILAREN 2A

**Erritua, kultura edo ikuskizuna? /** Ematen ez duen arren, *Aintzaldut daigun Agate Deuna...* kantatzen (ahalegintzen) ari dira umetxoak. Izan ere, makila faltan eta "uniformea" nahiko informala eta heterogeneoa daukate. Hori bai, gurasoak poz-ozik daude euren seme-alaben ahalegina sormen artistikoa legez erretzatzen. Kasu honetan, beraz, lurra kolpeka itzartzeko eta ondoren berriro landatzen hasteko erritua barik Agate Deuna martiria gorazarre artistikoki egiteko atera dira plazara. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**



# Eskegi sukaldean UKren barazkien posterra

Zelan eskuratu?  
Zatoz UKren bulegora\*, eskatu eta kitto!

## Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Barazki guztien izenak (euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta izen latinez) eta eurak jateko sasoiak.

Argitaratzailea:

UK aldizkaria

Babesleak:

Getxoko Udaleko

Euskara Zerbitzua


BBK

\* bulego ordutegia:

goizez 10:00-14:00 / arratsaldez 15:30-18:00



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37



## Iraganez doa denbora\* beti / ALGORTAKO ETORBIDEA 1950-2007

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



### uribitakora > mamatxitxo bi bidean



Sopela, 2006

Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

A ze neska parea,  
a ze ikusmira!  
Bat gainera kotxean  
lasai eseri da!  
Auto-ilara sortzen...  
Munipa begira...  
Broma ez baldin bada  
karnabalak dira.

"Titifrenoa", tanga  
eta diadema,  
bestela larrua da  
gainontzeko dena,  
baina irudimenak,  
buruan barrena,  
begi bistan jartzen du  
ikusten ez dena.

Berandu gindoazen  
eta hau sorpresa,  
bidera irten zaigu  
Rioko printzesa!  
Aita aho zabalik,  
ezer ez da kexa:  
lekutan gelditu da  
genekarren presa!

\* Doinua: *Mariatxiarena*

### erletxea > Lasa algortarrak irabazi du



Ezkerretik hasita bigarrena da Ander

**Algortako** Ander Lasa bere sendiagaz aurkeztu zen Erletxea saioko castingera, aitak eskatuta; halere, bere familiarik azkeneraino heldu den bakarria izan da, lehiaketak irau duen artean lau duelu gainditu behar izan dituen arren. Gazteak ez zuen bere burua garaile ikusten, baina ikusleek bidalitako telefono bidezko mezuei esker, Aritz Iparragirre eta Maritere Unibaso finalistak garaitu ditu. Mendian emandako denbora luze xamar egin zaiola aitortu du algortarrak, baina esperientzia errepikatuko lukeela onartu du. Eskuratu duen 18.000 euroko sariagatik izango ete da? Ez da edozelako gauza! m

### aratusteak > mozorroari hautsa kendu eta jantzi!



Inauteriak Altsasun, 1996an

**Otsailaren** 16tik 21era aratusteak ospatuko dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan. Hala ere, leku askotan aste bat beranduago mozorrotuko dira, tartean Algortan, eta daborduko urtarrilean ospatu duenik ere badago (Zubieta eta Iturenen kasua esate baterako). Gure artean mota biko aratusteak aurki ditzakegu: hiritarak (Donostia, Tolosa, Bilbo...) eta herrikoiak (Zuberoa, Olazti, Altsasu, Markina, Mundaka...). Azken horiek dira antzinako garaietako usadio bitxiak mantendu dituztenak. Inauteriak ospatzeko era batzuk gizakiak bezain zaharrak direla esan dezakegu. Gaur egun, kristautasunaren eraginez, jaiak Garizuma ekartzen digu (aratuste berba etimologikoki "haragi uzteak" esan gura duela dio teoria batek); baina lehenaldian udaberriaren jaiotzagaz lotuta ei zegoen. Hain zuzen ere, Euskal Herrian zaratagaz Lurra esnatzeko deia zegoela uste du hainbatek eta horregatik ereite jai bategaz erlazionatu izan dute askotan. m

### ekologia > Gobela erreka bere onera ekartzeko lanak amaitu dituzte



Gobela ibaia Sopela aldean

**Gizakiaren** jardunak Gobela errekan eraldatutako lekuak berreskuratzea, animalien zein landareen ugalketa sustatzea eta kalitatezko ur-ekosistemak sortzea izan da Bizkaiko Foru Aldundiak martxan ipinitako egitasmoaren helburua. Izan ere, Gobela errekaaren egoera ez zen batere ona, bertako dentsitate demografiko handia dela-eta, asko kalteturiko zonaldeak agertzen zituelako. Lanak joan den abenduan amaitu ziren eta neguan zehar bakarrik egin dira, berreskuratze lanen eraginkortasuna bermatzeko. Proiektuak fase bi eduki ditu: lehenengo eta behin, Sopela zeharkatzen duen erreka zatia konpondu dute, Saitu erreka gaz lotzen den tartea hain zuzen ere. Ondoren, Sopelatik Getxorainoko zatian burutu dituzte lanok. Besteak beste, uren sakonera handitu, bertoko arbolak zein landareak landatu eta ertzak garbitu dituzte. Horrez gain, Gobela inguruak ere atondu ditu Aldundiak, herritarrek ere parajeaz goza dezaten. m



**saiazgetaria**  
HOTEL





..haria

...lehenengo garaiak...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143



### komunikabideak > euskara hutsezko telebista Bilbo Handirako



**Bilbo Handian** euskara hutsezko telebista sortzeko orain arte emandako pausoen berri eman zuen joan den urtarrilaren 24an, Bilboko Kafe Antzokian, Ibaizabal Mendebalde Kultur Alkartek eta Euskal Herriko sei komunikazio eta kultur ekoizpen taldek irailean sustatutako Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeagaz bat egin zuen. Elkarregaz sortuko duten enpresa izango da, hain zuzen ere, Bilbo inguruko eskualdeei (Enkarterriak, Uribe Kosta, Txorierrri, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Nerbioi Ibarra) eta hiriburuari berari zuzendutako proiektua gauzatzeko arduraduna. Egindako agerraldian, estilo propiodun komunikabidea gura duela argi utzi zuen Ibaizabalek. Bilbo Handian 160.000 euskaldun bizi dira eta, hizkuntza ikasten edo ulertzeko gai direnak ere kontuan hartuta, 400.000 ikusle posible izango ditu telebista berriak. m

Informazio gehiago: [ibaizabal.wordpress.com](http://ibaizabal.wordpress.com)

### prentsa > euskaraz argitaratu ziren lehen egunkariak interneten



**110 urte** bete dira euskaraz bakarrik idatzitako lehenbiziko egunkaria argitaratu zela eta altxor hori gaur eguneko bizimoduan gal ez dadin, orduko prentsa digitalizatzea eta bere webgunean ikusgai ipintzea erabaki du Bizkaiko Foru Aldundiak. Hain zuzen ere, *Euskalzale* aldizkaria (1897-1899); *Ibaizabal* aldizkaria (1902-1903) eta *Eguna* egunkaria (1937) dira Interneten irakurgai egongo diren argitalpenak. Bilbon argitaratu ziren hiru aldizkariok, Zazpi Kaleetan zehazki, eta gure kulturaren oso garrantzitsuak diren hainbat pertsonaiek bertan jardun zuten: Karmelo Etxegarai, Felipe Arrese Beitia, Lauaxeta, Kirikiño, Paulo Zamarripa... Era berean, kazetaritzaren munduan joera modernoak ekarri zituzten argitalpenok. Halere, orduko euskal prentsak ezin izan ziren agintariak jarritako oztopoei luzaroan eutsi. m

Egunkariak ikusteko: [www.armiarna.com](http://www.armiarna.com)



“Antzezte nire energia kanalizatzeko era da, pertsonaia berriak sortzea beharrezkoa dut”

### Aintza Uriarte > Getxoko Antzerki Eskolako zuzendaria

**20 urte baino gehiago** daroaz Aintza Uriarte leioztarrak antzerkiaren munduan, baina oraindik pertsonaia asko gelditzen zaizkio antzezteko. Oso gaztea zelarik hasi zen Getxoko Antzerki Eskolan, garai haietan “antzerkia egiteko eskualdean zegoen leku serioena” zen eta. Haren ustez eskola asko aldatu da: “Orain dela 20 urte oso baliabide gutxi zeuden, baina gogo handia, munduko ordu guztietan eta egun guztietan gelditzen ginen”. Gaur egun eskolan dauden gazteak gizartearekin batera aldatu dira: “Oraingo ikasleek emaitzak eskatzen dituzte berehala, ez dute prozesuarekin disfrutatzen”. Berak, aldiz, “prozesu” hori maite du, “ni antzeztu barik bizi naiteke, baina ez entseiatu barik”. Gidoigile eta zuzendari lanetan ere ibiltzen da, baina nahiago du oholta gainean egotea. Hil honetan *Graffiti de amor politico* obra estreinatuko du Simulacro konpainiarekin. Honetan, Lima protagonistaren azalean jarriko da Aintza: “Maitatzeari beldurra dion emakumea da Lima. Asko pentsatzen du, ezin du errealtate gordina jasan”. Lan gogorra egin du pertsonaia ondo bereganatzeko, “ni, Lima ez bezala, maitatzeko erraztasun handia daukadan borietakoa naiz”. Antzerkia ogibidea baino gehiago beharra da Aintzarentzat: “Denbora luzez antzeztu gabe nagoenean jasan ezina naiz”. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**



**AIXERROTA BHI**  
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86





# Odol tanta batzuk gehiago

**Odol-emarien zenbatekoak %3,47 egin zuen gora 2006an, oster, mila biztanleko 21,31 emari bakarrik batzen dira udalerrian, OMEk odol erreserbak mantentzeko gomendatutakotik urrun**

**Pasa berri den urtean getxoztarrek aurreko urtean baino odol gehiago eman dutela jakinarazi du Bihotz Handi elkarteak. Pozteko lorpena bada ere, urrun dago irribarre guztiz zabala egin ahal izateko eguna, baina azken urteotako beherako joerari erreparatu gero, ezin berri txarra izan. Horregatik aurtengoak iaz hasitako gorako bideari eustea espero dute, eta horretarako behar egingo du Getxoko Odol Emaileen elkarteak.**

**Bihotz Handi**, Getxoko Odol Emaileen elkarteak gutun bidez eman die pasa den urteko emarien berri odol emaile getxoztarrei. Tantarik eman ez dutenen jakingarri izan bitez hurrengo lerrook, iaz goera txikia izan bazen ere, gora egin zuen-eta Getxon odol-emariak.

Getxon 2006an guztira 1.759 emari egon ziren aurreko urtean baino %3,47 gehiago. Algortan denetara 1.069 emari izan ziren (%1,62 igo zen), Areetan 397 eta Erromon 293 (%1,01 egin zuen behera).

Alabaina, 2006an 1.000 biztanleko 21,31 emari izan ziren Getxon; zenbateko hori urrun dago Osasunerako Munduko Erakundeak (OME) odol erreserbak mantentzeko gomendatzen duen %50etik. Emari gutxien batzen duen Bizkaiko hiru udalerrietako bat izan zen Getxo 2005ean. Aurtengo datuak oraindik zehatzak ez badira ere, Bihotz Handi elkarteak lehendakari Isabel Atxak aurreratu legez, "ziur-zenik alde horretatik ez dugu hobena egin".

Emarien zenbatekoa handitu asmoz zen-



Informazio gehiago: [bihotz.handi@gmail.com](mailto:bihotz.handi@gmail.com) edo 94 460 30 31

bait ekimen gauzatu zituen Bihotz Handik iaz, besteak beste: sentsibilizazio kapaina, Athletic taldeko emakumezkoak panpox eta eder agertzen ziren iragarkiarene bitartez, edota Getxo Arteko errugbilariak agertzen zirena; zapatuetan ere ipini zituzten odola emateko topale-

## «Guztira 1.759 emari batu ziren Getxon pasa den urtean»

kuak, Fadura eta Gobelako kiroldegietara hurreratu ziren... Eta badirudi, ahaleginak, guxtienez, merezi izan duela. Horren albotik, odola emateko lekuak eta datak batzen dituen egutegia ere aspalditik banatzen du elkarteak, eta aurtengoa ere dagoeneko prest daukate. m

## Datu batzuk

- **Emariak guztira:** 1.759, %3,47 gora
- **Algorta guztira:** 1069 emari. %1,62 gora
  - San Nikolas plaza: 533 emari
  - Redentor aparkalekua: 132 emari
  - Anbulatorioa: 175 emari
  - Metro geltokia: 229 emari
- **Areeta-Erromo guztira:** 690 emari, %6,48 gora
  - Anbulatorioa: 287 emari
  - Metro geltokia: 110 emari
- **Erromo guztira:** 293 emari, %1,01 behera

### ODOLA EMATEKO TOPALEKUAK otsailean

- **Anbulatorioa (Areea):** hilak 13
- **Anbulatorioa (Algorta):** hilak 19
- **Redentor aparkalekua (Algorta):** hilak 20
- **Kultur Etxea (Erromo):** hilak 22
- **Ordutegia:** 16:30-21:00

## Gizarte Zerbitzuen jarduna aztertze eta hobetzeko asmoz, ikerketa baterako 12.000 euro zuzendu ditu Udalak



Getxoko Gizarte Zerbitzuen egoitza

**EHUko** Ekonomia aplikatuko sailak Getxo, Bilbo, Portugalete, Gasteiz, Donostia eta Irungo udaletako Gizarte Zerbitzuak aztertuko dituen ikerketa egingo du.

Ikerketaren helburua udalerri bakoitzeko lan ereduaren arteko adierazle komunak batzen dituen sistema eratzea da. Aztertu beharreko gaien artean hurrengoak daude: udal bakoitzeko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten eskaintzak eta zerbitzuak behatu, giza proiektuei eta ekimenei zuzentzen dizkieten ordu kopurua miatu, udal bakoitzak sailera bideratzen duen diru partida arakatzea, etab. Hala Gizarte Zerbitzu bakoitzaren lan ereduaren berri izango dute, eta ostean, euren artean alderatzeko aukera edukiko dute

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Iñaki Urkizak adierazi legez, "gure artean konparatzeko bidea eskainiko digu ikerketak, hobetzeko alorrak azaleratuko ditu, eta ondorioz, gure baliabideei etekinik handiena atenez ahalbidetu diezaguke".

Izan ere, ikerketa horren bitartez gida moduko bat osatuko dute, eta horri esker zehaztu ahal izango dute "perfektua" izan gura lukeen Gizarte Zerbitzuen sail batek bete beharko litzuzkeen prozedurak edota jardunbidea.

Hala, EHUk garatuko duen ikerketa gauzatzeko Getxoko Udalak 12.000 euro bideratuko ditu, eta bien arteko hitzarmena dagoeneko onartu du Gobernu Batzarrak. m

## HAINBAT UDAL KEXA ETA KONTSULTA GOBELAN EGIN BEHARKO DIRA

Udaletxeko goiko solairuaren zaharberritze lanak direla-eta, Udaleko Kontu Hartzailtza arloa, aldi baterako, Gobela kiroldegitik (Erromo) egingo du behar. Ondorioz, arlo horrek daroazen hainbat esparrutako kontsultak edota kexak egiteko bertara joan beharko du erabiltzaileak. Kontsulta zein kexa horietako batzuk hauek dira: zergak eta prezio publikoak, ezinduentzako hobariak zirkulazio zergan, ezinduentzako TAO txartelak, ordenantzak, fakturak eta endosua... Horrez gainera, hurrengo bideetatik ere egin ahal izango dira aipatutako galdeketa edo eskaerak: [kontuhartzailtza@getxo.net](mailto:kontuhartzailtza@getxo.net) / 94 466 00 25

## MATRIKULAK IDENTIFIKATZEKO SISTEMA BERRIA DU UDALTZAINGOAK

Getxoko Udalak lehiaketara ateratu du (gehienez 52.200 eurotan) udaltzaingorentzako sistema mugikor berri baterako tresneria erosteko asmoa. Ibilgailu batean ipiniko duten sistema berriak matrikulak identifikatzeko, ibilgailuak aurkitzeko eta trafiko salaketan kontrolerako balio du. Hala, matrikulen argazkiak eta inguruko irudiak ateratzeaz gain, autoak aurkitzeko GPS sistema ere badauka, eta programa batek argazkiok euskarri informatikora pasatzeko aukera eskainiko du.

## TAXI BIDAIEN PREZIOAK %3,4 EGINGO DU GORA

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Lan Publikoak sailak zehaztu dituen prezio berriak jakinarazi dizkie Getxoko Udalak bertoko taxi-gidariei. %3,4ko igoera izango dute prezioek, beraz, tarifak horrela lotuko dira: abiasariak gehienez 4,77 euro (lanegunetan) eta 5,24 euro (gauetan eta jaiegunetan) 1,5 km tartean; kilometro bakoitzeko 0,5 euro (lanegunetan) eta 0,56 euro (gainontzeko egunetan).



**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



# Sarearen

bidez Getxoko Udaleko ordainketak egin daitezke

**Ordainketa-pasabideko** kide da dagoeneko Getxoko Udala. Ordainketa-pasabidea Eusko Jaurlaritzak sortu duen plataforma birtual bat da eta horrek bertako kide diren udal zein erakundeetako zergak, tasak edota isunak internet bidez ordaintzea ahalbidetzen du. Hala, herritarrek udal bulegoetara joan barik ordaindu ahal izango dituzte Getxoko Udaleko zergak, tasak edota isunak uda-

## «Ordainketaren ziurtagiria inprimatzeko aukera ematen du programak»

laren webgunearen bitartez. Horrez gainera, Getxoko Udaleko zein gain, ekimenaren kide diren erakundeek ere ordaindu ahal dira; beste hiru udal bizkaitar dira bertako kide (Zornotza, Bilbo eta Basauri) eta Gipuzkoako beste zenbait ere barruan daude. Programak duen berrikuntza nagusietako bat da erabiltzaileari ordainketaren ziurtagiria inprimatzen uzten diola (ordaindu izanaren berme juridikoa litzatekeen agiria eskuratzea, alegia). Bestalde, desabantaila nagusia da BBK dela plataforma honeguz diharduen kutxa bakarra (hurrengo hiletan beste kutxa eta banku batzuk sartzea espero dute ekintzaileek). m

Ordainketa-pasabidea: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)



**Mari Carmen Miguel Saiz** > dendaria eta jostuna

“Lan gogorra da, ordu asko sartu behar dira, baina mozorro bat jostean gozatu egiten dut”



Informazioa: [www.villamonte.net](http://www.villamonte.net) edo 94 430 23 52

**la 20 urte daroaz Mari Carmen Miguel Saizek herrikoak (eta inguruak) mozorrotzen. Despedidas & Dizfraces Villamonte lehenengo denda 1987an zabaldu zuen eta oraintsu zabaldu du 3. saltokia. Aratusteak mozorro eske dauden honetan, aurtengo eskaeren gainean ere jardun du berbaldian.**

—**Ia 20 urte mozorroak saltzen...**

—Algortako Villamonte kaleko 4. zenbakian zabaldu nuen lehenengo denda. Txiki lotu zitzaidan eta hemendik hur dagoen lokala erosi nuen. Osasunez makal ibili nintzen bi urtez eta itxi egin behar izan nituen. Gero leku handiagoa behar izan dudanez Basagoiti etorbidean zabaldu dut beste bat. Mozorro, ezkon aurreko edota bestelako agurretarako jantziak eta opariak (erotikoak zein besteak) saltzen ditugu. Mozorroak enkarguz egiteko lantegi propioa ere badaukagu, hor ez dugu mugarik: filmetatik kopiatzen dugu, panpin edo jostailu batetik... Merkatuan saltzen ez direnak ekoizten ditugu, berezoak eskatzen dituelako. Zerbait eskatzen badigute eta denda ez badago, bilatzen eta ekartzen ahalegintzen gara, beti diot debekatua eta ezinezkoa den gauza bakarra “ez daukat” esatea

dela, ez badaukagu aurkitu, eta bestela, asmatu. Enkarguzkoak ez dira garestiegiak, 8-10 euro balio dezakete, oso konplexua bada gehienez 18 euro. Hori bai, oihala bezeroak erosi eta ekarri behar du, haren gustuen arabera. Mozorro-oihala merkea da; nik beti aholkatzen diet herriko betiko denda ezagunetan erostea, nahiago dut herriko, bertoko dendetan dirua uzteko, ez beste edonon.

—**Saltoki handiek min handia egiten dute.**

—Bai. Gainera, sasoi honetan mozorroren prezioa balioaren azpitik ipintzen dute, hau da, 10 eurotan erosi duten mozorroa 6 eurotan dute salgai. Likidazioan daudela diote, gezurra, espreski garai honetarako erosi dituzte-eta! Amu modura erabiltzen dute, bezeroa bere saltokira erakartzeko eta, zelan ez, mozorroaz gain beste gauzaren bat erosi du bezeroak, hortik lortzen dute etekina! Baina gu oso arrain txikia gara salaketaren bat ipintzeko, legez kanpoko jarduna bada ere.

## «Debekatuta dagoen gauza bakarra “ez daukat” esatea da»

—**Aratusteetan bezeroz bapo, baina gero?**

—Ezkon aurreko agurretarako eta urtebetetzearako mozorro eskaerei esker irauten dut. Ezin nahiz kexatu hiru denda dauzkat, eta gelditu barik gabiltza. Arropa konponketak ere egiten ditugu, merketxu. Txiki askok gauza handi bat egin dezakete, eta horrela goaz aurrera. Nire bezeria hazi da ahoz ahoko publizitateagatik; bezero fidelak dauzkat eta eurek egiten didate publizitatea; zein harro nagoen horregaz! Bermeo, Ondarroa, Barrika, Plentzia eta aberreko bezeroak dauzkat; ikastetxe askotakoak ere, taldeko beharpena egiten dugulako. Pozik nago, lan gogorra da, ordu asko sartu behar, baina ogibidea maite dut, mozorro bat jostean gozaten dut.

—**Eta aurtengo mozorro errege/erregina?**

—Eskimal/inuitena (film bat ei dago), egiten duen hotzagaz aproposa! Pantera Arrosarena, edo gizonentzat “neskamearena”... m

## Ikasteredu elebidunaren aldeko kanpaina ipini du martxan Getxoko Udalak



Argazkian, urtarilean egin zen jardunaldia, hizlariak Xabi Paya eta Ana Urrutia izan ziren

**Eskolarako** matrikulak betetzen diren garaia da otsaila, eta sasoi honetan euren umeak lehenengoz eskolaratzen dituzten guraso askoren buruhausteetako bat ikasteredua izaten da: elebiduna ala elebakarra, eta D (ikasgai guztiak euskaraz, gaztelania izan ezik), B (ikasgai batzuk euskaraz, eta beste batzuk gaztelaraz) edo A (ikasgai guztiak gaztelaraz, euskara salbu). Hala, matrikulazio epearen aitzakian, Alkardideren (Euskara zerbitzu teknikoak batzen dituen foroa) ekimenez Bizkaiko 43 udalek (horien artean Getxokoa eta eskualdeko gehienak) *1+1=bi* informazio eta sentsibilizazio kanpaina ipini dute martxan, elebitasunaren aldeko aukera bultzatuz.

Kanpaina hiru ekinbidetan bana daiteke: 0-3

urte bitarteko umeen gurasoek postontzian jasoko duten gida praktikoa bat (sor dakizkiekeen itaun eta erantzunak osatutakoa); bi informazio jardunaldi (bata urtarilean egin zen, bestea hilaren 14rako iragarri dute Erromoko kultur etxean eta etorkinei begirakoa izango da); eta informazio pack bat banatzen hasi dira (euskal hezkuntza sistemaren gaineko informazioagaz, iazko matrikulazio datuak, puzzle bat...). Iazko ikasturteko kopuruei begiraturaz, Getxon haur hezkuntzan (guztira 2.283 ikasle) umeen %51,6k D ereduaren ikasi zuen, %24,8k B-n eta %23,47k A-n; lehen hezkuntzan (2.829 ikasle) %49,1 D ereduaren, %24,9 B-n eta %25,8 A-n. m

## EGIZUK HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DITU

Egizu ekimenak Berbalaguna programaren barruan zenbait ekitaldi iragarri ditu hil honetarako eta martxorako. Hilaren 17an Meatzaldean egun pasa egiteko irteera antolatu dute, martxoaren 3an Astigarragako sagardotegi batera joateko deia egin dute (Santutxu eta Deustuko berbalagunakaz batera), eta martxoaren 10-11 aste askabuan Jakara eskiatzera joango dira.

Informazio gehiago: [www.blogari.net/egizu](http://www.blogari.net/egizu) edo 619 935 541

## ¡AMA, QUIERO SER LEHENDAKARI! ANTZERKI LANA GETXO ANTZOKIAN

Glu-Glu antzerki taldearen azkenengo lana egongo da ikusgai Getxo Antzokian. *¡Ama, quiero ser lehendakari!* antzezlanaren hilaren 17an oholtzaratuko du Glu-Gluek Getxon 20:00etatik aurrera. Sarrerek 15 euro balio dute eta dagoeneko salgai daude.

## 0-3 URTE ARTEKOENTZAT GELA BERRIAK

Getxoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko Haurreskola partzuergoak adostutako hitzarmenaren ondorioz, San Inazio ikastetxean 0-3 urte bitartekoentzako gelak egokitu dituzte. Eskaeraren arabera, 6 gela izan litezke, eta zentroa zaharberitu ondoren zabalduko lirateke, hau da, datorren urtean. Getxoko alkate Iñaki Zarraok gogoratu duenez, “Haurreskolen eskaintza ez da demigorrezkoa, zentro pribatuak eskaintzen dituzten baldintza, ordutegi eta prezio berberak eskaintzen ditu, baina diru gubxiago dutenek diru-laguntzak jaso ditzakete”.

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

[www.seminuevosengetxo.com](http://www.seminuevosengetxo.com)

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81



**Xabi Larrea** > zirku tailerreko irakaslea

## “Euskal Herrian beharrezkoa da zirku eskola publikoa sortzea”

**Maiatzaren 9ra arte, zirku tailerra antolatu du Aterpe Gazte Bulegoak eta Xabi Larrea malabarista bilbotarra ekarri du Leioara eskolak eman ditzan. Besteak beste, Ingalaterran eta Kuban ikasten ibilitakoa da Xabi. Ikastaroan zirko teknikak landuko dira: malabareak, akrobaziak, oreka mantentzeko ariketak... Eguaztenero izango dira klaseak, 18:00etatik 20:00etara. Irakasleagaz egon gara zirkuaren mundua apur bat arakatzeko asmoz.**



Argazkian, Xabi Larrea

—Zergatik aukeratu duzu zirkuia ogibide moduan?

—Hobby moduan hasi nintzen malabareak egiten eta apurka-apurka lana ateratzen hasi zitzaidan: tailerrak, urtebetetzeak... Orduan, horretan sakontzea erabaki nuen eta Ingalaterrako Circomedia zirku eskolara joan nintzen. Bertan erabaki nuen honetan jardutea.

—Kubako zirku eskolan ere ibilia zara.

—Bai, hango eskola tradizionalagoa da. Teknika oso-oso landua duen arren, aurkezpenaren arloan apur bat zaharkituta dago. Circomedian (Ingalaterra) teknika ez da hain landua, baina aurkezpena askoz hobea da.

—Zer ikasten da zirku eskola batean?

—Hori eskolaren arabera da. Kuban, esaterako, akrobazia da gehienbat lantzen dena, baina Circomedia zirku garaikidea denez, antzerki eta pantomima piloa egin genuen.

—Eskolarik al dago Euskal Herrian?

—Hiru eskola daude, baina oso txikiak eta pribatuak denak: Baionako eta Iruñeko Ore-

ka eskolak eta Donostiako Sebastopol. Bai-onakoa umei zuzenduta dago batik bat; Iruñekoa profesionalentzat da, baina hasierako urratsak besterik ez ditu irakasten eta Sebastopolen ikastaroak eskaintzen dituzte, besterik ez. Beharrezkoa da Euskal Herrian eskola handiago bat sortzea, publikoa. Hainbat alditan eskatu dugu.

### «Europako zirkuia Cirque du Soleil bezalakoa izango da etorkizunean»

—Zirkuaren inguruko lanik ba al dago gure herrian?

—Bai, egon dago, baina kale antzerki moduan. European zirku ikuskizunak 5-8 minutukoak dira eta jaialdien, zirkuaren, kabaret... barnean joaten dira. Hemen ez dago horrelakorik; orduan oso gaxa da horrelako ekitaldiak antolatzea. European onartuago dago mota horretako zirkuia egitea.

—Berba egiguzu “zirku berria”-ri buruz.

—Eboluzioaren ondorioa da. Aurrerantzean, European zirkuia *Cirque du Soleil* bezalakoa izango dela uste dut. Halere, tradizio asko dago oraindik eta mantentzen ari da. Animaliak pixkanaka-pixkanaka desagertuz joango dira eta, gehienez, animalia etxekoak erabiliko dituzte. Zirku klasikoak ez du zertan desagertu, bere teknika oso inoadartsua da eta. m

## Birziklatu

Martxotik aurrera **etxeko olioia jasoko du** Udalaren furgoneta batek



Olioia gorde aurretik hozten uztea gomendatu du Leioako Udalak

**Martxotik** aurrera etxeko olioia birziklatzeko aukera egongo da Leioan. Bilketa hileko bigarren astelehen eta eguenean egingo dute, dohainik, Ikea Barri plazan (10:00-16:00), Basañez-Artatzan (15:30-17:30), Artatzaganen (17:30-19:30), Pinuetan (10:00-12:00) eta Lamiakon (12:00-14:00). Eskaratzean erabili ondoren, Udalak helburu horretarako espreski jarritako furgoneta batzuetan (isuriketarako edo suteak ekiditeko prestatuta daude) utzi beharko dute herritarrek olioia.

Erabilitako likidoa edozein ontzitan gorde daitekeen arren, bi litroko plastikozko edukiontzia banatuko ditu Udalak, otsailaren 19tik 23ra, zehaztutako

leku batzuetan: Sakoneta kiroldegia, Pinueta, Txorierrri, Lamiakoko nagusien etxea eta San Bartolomeko kultur etxea. Gainera, edukiontziek daramaten etiketan agertuko dira bilketa ordua eta eguna, inolako nahasmenik egon ez dadin.

Olioak saneamendu hodieta kalte egiteaz gain, izugarri kutsatzen ditu errekek; hori dela-eta, olioia hartu eta eraldaketa prozesu baten bidez biodiesel bihurtuko dute ibilgailuek erabil dezaten. Erregai mota hori erabat erabilgarria da diesel motoretan eta azken horren errendimendua hobetzen du. Gainera, biodieselaren erabilerak nabarmen murrizten ditu isuriketara kutsatzaileak. m

## LIBURUJATUN LEHIAKETA ABIAN IPINI DUTE OSTABERE

Urtarrilaren 22an LiburuJatun lehiaketako bost liburuen izenburuak argitaratu zituzten Kultur Leioan. Horiek irakurri eta martxoaren 28ra arte edukiko du gura duenak planteatutako galderak erantzun eta lehiaketan parte hartzeko. Lehenengo lau galderak erantzunak liburuan aurki daitezke eta bosgarrena, berriz, galdera irekia izango da. Era berean, kategorian bi egongo dira: gaztelaniaz eta euskaraz. Halere, gura duenak bietan parte hartu ahal izango du (lehiakideek 16 urte baino gehiago eduki behar dute). Sari banaketa, berriz, apirilaren 23an izango da eta honako hauek izango dira banatuko dituzten opariak: 1. saria, bi pertsonentzako afaria Artatza hotelean eta Elkar Megadendako 150 euroko balea; 2. saria, Elkar Megadendako 120 euroko balea; eta, azkenik, 3. saria, Elkar Megadendako 50 euroko balea.

## HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA PROBATUKO DUTE

Bakearen eta normalizazio politikoaren alde ibarretxe lehendakariak martxan jarritako Elkarrizketa eta Herritarren Parte Hartzea sustatzeko Foroaren probak hasi dituzte otsailean. Leioaz gain, beste 13 udalerrik hartuko dute parte ekimenean: Bermeo, Durango, Donostia, Tolosa eta Amurrio, besteak beste. Herritarren iritzia batzea eta eremu politikora eramatea da egitasmoaren helburua eta, probak ondo irtezen gero, udal gehiago parte hartzea espero dute.

# Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea

Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa  
Tel: 94 633 81 59

## udondo

taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

## ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)



## [erandio]

Iñaki Rodrigo > aratusteetako kartel lehiaketaren irabazlea

## “Ezagutzak, teknika eta kreatibitatea beharrezkoak dira lanbide honetan”

**Algortako Iñaki Rodrigo, “Rodri” lagunentzat, suertatu da aurtengo inauterietako kartel lehiaketan irabazle. Originaltasuna, Erandioko herriagaz zerikusia eta kalitate artistikoa edukitzea ziren aurkeztutako lanek bete beharreko ezaugarriak eta badirudi gazte getxoztarrarenak ondo betetzen zituela, joan den urtarrilaren 29an, 1.500 euroko saria eroan zuen-eta etxera.**

**Pozik dago** Rodri Erandion lortutako sariagaz, “diruagatik baino gehiago, ematen duen ospeagatik”. Izan ere, langabezian dago momentu honetan eta, bere ustez, mota hauetako lehiaketak arte grafikoaren munduan lekutxo bat egiteko lagungarriak izan daitezke. Hain zuzen ere, Arte Grafikoko ikasketak burutu zituen gazteak Bilbon, Atxuriko eskolan zehazki. Urte bi ikasten egon ondoren, lanean hasi zen. “Denetarik egin izan dut: portadak, argazkiak, elastikoak, kontzertuetarako kartelak, fotolitoak muntatu, maketazioa... Diseinu grafikoaren munduko enpresa bitan ere jardun dut, baina onain behar barik nago”, azaldu du Rodrik.

Etorkizunean diseinatzaile moduan behar egitea gustatuko litzaioke, enpresa handien “protokoloa” gogoko ez duen arren. “Halere oso gatsa da horretan jardutea. Arte



Julio Puertas Kultura saileko zinegotzia eta Iñaki Rodrigo, azken honek egindako kartelagaz

grafikoak hemen ez daude batere ondo ordainduta eta gauza bera egiten duen jende pilo dago. Ezagutzak, teknika eta kreatibitatea beharrezkoak dira lanbide honetan eta ez dira askotan aintzat hartzen”. Lantzean behin, enkarguak egiten ditu bere kabuz. “Baina ez du dirurik ematen, normalean lagunak eta ezagunak izaten direlako nire bezeroak”, deitoratu du.

Lana aurkitzen duen bitartean, beraz, ahalik eta lehiaketa gehienetara aurkeztea

erabaki du Rodrik: Portugaleten, Bilbon, Algortan... Daborduko Erandiokoan aurkeztu da eta ezin dezake esan gauzak txarto joan zaizkionik, lehenbiziko saria eskuratzea ez da-eta edonolako gauza. “Aurretik beste lehiaketa batzuetara aurkeztu nituen karteletatik zeharo aldentzen den zerbait egin dut oraingoan. Normalean photoshopa erabiltzen dut eta noiz plastilina ere bai, baina oraingoan ebakita eta margotutako argazkiak dira. Hondoan, berriz, Erandioko enaikinak”. m

## Bizikidetza

Herriarren parte hartzea eta harremanak sustatzeko plana abian ipini du Udalak



Herriarren parte hartzea urtarrilaren 31n kalean hasitako 371 inkestaren bidez bideratuko da

**Udalerriko** gizarte harremanak zelan dauden eta horiek zelan hobetu daitezkeen jakitea da Erandioko Udalak martxan jarri duen Bizikidetza Plan Integralaren helburua. Horretarako, herritarrek zuzenean parte har dezaten bideak zabaldu gura ditu, udal ordezkariak jakinarazi dutenez, parte hartze hori askotan urria delako.

Plana abian dago daborduko, baina ez dauka amaiera datarik. Herriarren parte hartzea urtarrilaren 31n kalean hasitako 371 inkestaren bidez bideratuko da. Gazteen, etorkinen eta emakumeen kolektiboetako ordezkariak egingo zaie galdeketa, hala nola, adin zein egoera sozial desberdinetako pertsonen.

Elkarrizketatuek, berriz, bizitza kalitatearen, aisiaren, euskararen, ingurugiroaren eta segurtasunaren inguruan euren iritzia emateko aukera edukiko dute. Ekipamenduek, etxebizitzak, garraioak, merkataritzak eta langabeziak ere parte bat edukiko dute galdeketa.

Behin informazioaren bilketa burututa, horren diagnostia egingo dute Udaleko adituek eta horren arabera ekintza plana osatu. Datuen inguruko hausnarketa egiteko lau edo bost hilabete beharko dira. Ikerketatik ateratako ondorioak parte hartzaile guztiak onartu beharko dituzte, osatzen den plana berme guztiak aplikatu ahal izateko. m

## MUSIKA BANDAK JARRAITUKO DUELA ZIURTATU DU UDALAK

Erandioko Musika Bandak jarrai dezan hitzarmena onartu zuen urtarrilaren amaieran Erandioko udalbatzak. Taldea behin betiko finkatzea izango da hitzarmenaren helburua; izan ere, eskualdean Udalekoa den musika talde bakarra da. Akordio berria lau urtean zehar egongo da indarrean eta zapi hilabeteko kontratua eduki beharrean, urte betekoa edukiko du. Erandioko Bandak emanaldia eskaintzen ditu, besteak beste, jaietan, Santa Zezilian eta Errege gauan.

## 2007KO UDAL-KATALOGOA ESKURAGARRI DAGO

Daborduko eskuragarri dago 2007ko udal-katalogoa. Gura duenak kultur etxeetan, Udaletxean zein liburutegietan jaso ahal izango du. Dohainik banatuko dute eta joan den urtean lehenbiziko aldiz Erandion erroldatu zirenek euren postontzian jasoko dute gida. Guztira, 9.000 ale baino gehiago argitaratu dituzte eta, besteak beste, telefono interesgarrien gida, argazkiak, mapak, herriaren historiaren inguruko aipamenak eta jaien egutegia edukiko ditu.

## ARATUSTEAK OSPATUKO DITUZTE OTSAILAREN 16TIK 18RA ARTE

Aratusteen egun handia otsailaren 17an izango bada ere, 16tik 18ra arte jai egitarau luzea prestatu dute Erandion. 16an Play back lehiaketa egingo dute Irailaren 23a plazan, 22:00etan. 17an, berriz, mozorrotzeko eguna izango da eta, horrez gain, umeentzako tailerrez, mozorro lehiaketaz, txokolatadaz, dantzaldiaz... gozatzeko aukera egongo da. 18an, Astrabuduaren txanda izango da. Bertan ere mozorro lehiaketa, kale-animazioa, txokolatada eta kalejira antolatuko dute. Ondo pasatzeko aukera paregabea!

moda gaztea opariak

**IRATI**

Torreña 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71

**Basolanak**

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

**ARLAN**

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz



## BENICASSIM MUSIKA JAIALDIA SOPELARA EKARRI GURA DUTE

Uztailaren 19tik 22ra, FIB Benicassimeko (Valentzia) musika jaialdi entzutetsua Sopolara eta Gorrizera ekarri gura dute. Valentziako eta Uribe Kostako jaialdiak, beraz, aldi berean egingo lituzkete; adituek "twiner festival" edo jai bikoitza deitzen dutena alegia. Musikaz gain, laburmetraiak, antzerkia, dantza, moda eta arte ikuskizunak eskaintzen ditu jaialdiak. Azkeneko edizioak 130.000 ikusle eduki zituen. Halere, oraindik zehaztu beharreko alderdi asko daude antolatzaileen eta euskal erakundeen artean eta ezer adostu ezean, jaialdia Asturiasera edo Galiziaro eroango lukete.

## JAI BATZORDEAN PARTE HARTZEKO GONBITEA LUZATU DIETE ELKARTEEI

Herriko elkarteak Jai Batzordean parte hartzeraz gonbidatu ditu Sopolako Udalak. Beraz, herritarren eskariak udal arduradunei helarazi gura dieten taldeek otsailean eman beharko dute izena Hall Kulturallean edo Udaleko Kultura Sailean; batzordearen batzarrak martxoan hasiko dira eta. Era berean, gura duenak jaien inguruko proposamenak bialdu ahal izango ditu [kultura@sopelana.net](mailto:kultura@sopelana.net) helbidera.

## INGELES TOPAKETAK PROGRAMAN IZENA EMATEKO EPEA IREKITA

Erresuma Batura ingelesa ikasten joateko Ingeles Topaketak programan izena emateko epea ireki dute Hall Kulturallean (martxoaren 2an izango da azkeneko eguna). Guztira 1993an jaiotako 40 sopoloztarrek hartu ahal izango dute parte. Hiru astekoa izango den bidaian bertako familiakaz biziko dira nerabeak. Prezioa, berriz, 900 eurokoa izango da (gastu guztiak barne).

## Urko kiroldegia Instalazioetan eta errepidean hobetze lanak egitea erabaki du Udalak



Atletismoa, tenisa eta padela praktikatzeko instalazio berriak erikiko dituzte Urkon

**Belarrezko** futbol zelaia, armailak, aldagelak eta belar artifizialezko beste zelai bat dauka, besteak beste, Urko kiroldegia. 2007a amaitu baino lehen, ordea, atletismoa, tenisa eta padela praktikatzeko instalazio berriak edukiko ditu; baita skate pista bat ere. Horixe da, behintzat, Sopolako Udalak azkeneko udal batzarra egin ondoren agindutakoa.

Kiroldegiko aparkalekua eta Arabetako errotonda lotuko duen zubia eraiki ondoren hasiko dituzte Urkon lanok. Izan ere, gaur egungo errepidea ordezkatuko duen bide berria eraikitzea aurreikusten du Udalak eta,

horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren balesa jasoko du (proiektua aurrera eramatea kostatzen duen 130.000 eurotatik 75.000 aldundiak ordainduko du).

Udaletxean aurkeztu duten egitasmo berriaren arabera, zubi berriak zabalera handiagoa edukiko du eta, ondorioz, posible izango da espaloi eta lerro bi jartzea, noranzko bakoitzeko bat.

Bestalde, Sopela zeharkatzen duten errepideek bost biribilgune berri izango dituzte. Alde batetik, ibilgailuen zirkulazioa arindu gura dute neurri horregaz eta, bestetik, hiri-gunetik abiadura handian joatea saihestea. m

Begoña Minayo > Munarri Atletismo Taldeko korrikalaria

"Hasieran **gizonakaz entrenatzen** nuen emakumerik ez zegoelako"



Bizkaiko maratoiko markarik onena dauka Begoña Minayok

**Begoña** Minayo sopoloztarra 25 urte gaz hasi zen korrikan, gaur egun kirolean hasteko nahiko berandu izango litzatekeen adinagaz. "Orduan, nire senarra denagaz irteten hasi nintzen eta benak korrika egiten zue-nez..." gogoratu du Begoñak. "Ganai hartan ez pentsa emakumeok kirol askorik egiten genuenik. Nik ez nuen aukeratu, kasualitate hutsa izan zen kirolari amorratua den pertsona baten neska laguna izatea".

Begoñak bere hastapenetako oztopoei aurre egin zien. Hasieran, gizonakaz entrenatu behar zuen, emakumerik ez zegoelako. "Gainera, adina zela eta, ezin nituen abiadurako lasterketak egin eta lasterketa luzeetan (maratoia, herri-lasterketak...) espezializatu behar izan nintzen", azaldu du kirolariak. Halere, gauzak ez zaizkio batera txarto joan eta maratoian, esaterako, Bizkaiko markarik onena dauka; ordu 2 eta 54 minutukoa alegia. "Hori da nire markarik onena. Emakume batek hiru ordu baino gutxiago egitea lorpen izugarria da. 80ko hamarkadan lortu nuen eta onaindik ez naute garaitu". Horrez gain,

Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan dominak lortu ditu sopoloztarrek.

Gaur egun ahal duen lasterketa guztietan parte hartzen jarraitzen du eta besteak beste, Euskadiko kross txapelketan lehenbiko postua eskuratu du beterranoen kategorian. Oraingoan, beraz, ez dio amaiera datarik ipini gura bere kirol-ibilbideari. "Ahal dudan guztia egiten dut. Neure buruari mugak jarri

**«Neure buruari mugak jarri dizkiona neu izan naiz, ez naiz inoiz sakrifikatu»**

dizkiona neu izan naiz, ez naiz inoiz sakrifikatu. Askotan pentsatu izan dut arinago hasi izan banintz, urrunago helduko nintzela".

Korrika egitea, baina, ez da Begoña kirolagaz lotzen duen jarduera bakarra; izan ere, orain dela bost bat urte Munarri Atletismo Taldea sortu zuen beste kirolari batzukaz batera. "Herrian ez zegoen talderik eta bertoko korrikariok ez genuen elkar ezagutzen. Horregatik lasterketetan parte hartzeko taldea sortzea erabaki genuen". m

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturrirbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

**LAIKAK  
Taberna**

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34



**BERANGOKO GAZTEAK  
GUATEMALAKO  
ERREALITATEA EZAGUTZEN**

Guatemalako ama gazteei laguntzeko asmoz, Berangoko neska mutilak kooperazio egitasmo batean dihardute lanean abendutik. *PTM Mundu Bat* gobernu kanpoko erakundearen laguntza jasotzen ari dira horretarako. 13 eta 18 urte bitarteko hamar gazte daude proiektuan lanean gaur egun. Gazteleku batzen dira ostegunero eta bertan eztabaidatzen dituzte helburuak eta finantzazioa lortzeko moduak. Hala ere, kolaboratzaileek azpimarratu nahi izan dute, ez dela Guatemalako dirua biltzeko proiektu soil bat, gazteak kooperazio proiektuetan parte hartzen animatzeko eta, beharrezkoa izatekotan, Guatemalara bidaiatzeko prestatzeko proiektua baizik. Bultzatzaileek, deialdia ireki nahi dute, Berangoko herritarrek egitasmoarekin bat egin dezaten.

**GIDATZEAN GUTXIAGO  
KUTSATZEKO IKASTAROA  
URIBE KOSTAN**

Uribe Kostako Mankomunitateak eta Euskal Energiaren Erakundeak (EVE), gidatze eramangarria bultzatzeko ikastaroa antolatu dute. Eskolak doakoak izango dira eta alde teorikoa eta praktikoa izango dute. Helburua, erabilitako erregaiaren eta igorritako CO2aren kopurua murriztea izango da. Hasteko, zirkuitu bat egin beharko dute parte hartzaileek; gero, gidatze eraginkorri buruzko teoria azalduko zaie eta, azkenik, zirkuitu bera egin beharko dute, ikasitako aplikatuz. Zirkuitu bakoitza amaitzerakoan, kontsumitutako erregai neurtuko da, alderaketa egin ahal izateko. Eskolak lau ordutakoak izango dira eta gidabaimena eskatuko da parte hartu ahal izateko.

**Izena emateko: 8:00etatik-15:00etara  
94 676 26 74 telefonoan**

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
**baimenak**

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

**Antonio Castro** > Berango Futbol Taldeko presidentea

“Gezurra dirudi, baina Berangoko gazteak ez dira herriko futbol taldean gelditzen”



Antonio Castro. Behean zelaia inaugurazioa

**Futbol zelai dotorea estreinatu berri dute Berangon. Bertara hurbildu eta Antonio Castro Berango Futbol Taldeko presidentearekin berba egiteko aukera izan dugu. Klubaren egoeraz, taldeen emaitzez eta Berangoz berba egin digu sentimenduz betetako berbekin.**

—Zelan dago Berango Futbol Taldea?

—Gezurra dirudi, baina herriko jendea ez da Berangoko taldean gelditzen, inguruko klubetara joatea nahiago izaten du. Niri herriko gazteak taldean gelditzea gustatuko litzaidake, hori izan da nire helburu nagusia presidente sartzetik. Momentu honetan bost talde ditugu, 125 gazte, baina horietatik 14 bakarrik dira herrikoak. Jende gutxi etortzen da partidak ikusten. Ni jendea animatzen saiatzen naiz eta esaten diet partidak ikusten etorri behar direla, giroa sortzeko. Pena handia da aurkariak datozenean eta animatzen kanpoko jende gehiago egotea herriko baina. Gainera, orain A taldea oso momentu onean dago, bigarren postuan daude, eta oso garrantzitsua da animatzea eta giroa sortzea.

—Zer da Kluba zuretzat?

—Ni taldearen sorreran egon nintzen orain dela 21 urte eta Kluba niretzat dena da. Zorionez nik erraztasuna daukat jendearekin erlazionatzeko, baina partida hasi baino lehen aldageletara sartzea eta gazte guztiak agurtzea... momentu horiek oso politak izaten dira.

—Ze aldaketa egin dira zelaian?

—Aldaketa erabatekoa izan da. Lehen belar naturalekoa zen eta asteburuetan bost taldeak jokatzen zutenean lokaztuta gelditzen zen. Orain, belar artifizialarekin, talde guztiak gustura jokatu ahal izango dute. Gainera, zelaia askoz handiagoa da orain, San Mames baino handiagoa. Bestalde, aldagelak eta argiztapena ere aldatu da. Azken orduko konponketa batzuk falta dira oraindik. Herrikoak eta inguruko herrietakoak zelaia erabiltzeko aukera izango dute nahi izanez gero,

**«Herriko jendeak zelaia erabiltzeko aukera izango du»**

taldeen entrenamenduak errespetatuz beti. Herritarrentzako inbertsioa izan da, ez bakarrik klubarentzat

—Zer ekarriko du zelai berriak?

—Espero dut, uztailetik aurrera, jokalaria berrientzako deia zabaltzen dugunean, hau jendez lepo egotea eta jokalaria bilatzen egon beharrean, sobera edukitzea. m



**Unai Manzanet** > Haizeako tabernaria

“Haizea jende gaztearentzako taberna zen, faltan sentituko du askok”



Igor eta Unai Manzanet

**Urtarrilaren 28an** itxi zituzten Gorlizko hondartzan dagoen Haizea tabernaren ateak behin betiko. 12 urtez bezeroei musika ona eta jai ahaztezinak eskaini ostean, agur esateko ordua heldu zitzaion Igor eta Unai Manzanet anaiei; izan ere, Gorlizko hondartza handitzeko lanak direla-eta, bertako eraikinak botako dituzte.

“1995ean hartu zuen nire anaia Igorrek Haizea”, gogoratzen du Unai Manzanetek, “Bilboko Alde Zaharreko tabernetan ibilia zen eta bere negozioa ireki gura zuenez, hondartzako lokala alokatu zuen, denboragaz eraikin horiek botako zituztela jakin arren”. Hain zuzen ere, hondartza handitzeko proiektua urteetan zehar eduki du Udalak eskuartean, baina ezin izan du aurrera eroan hondartzako tabernekin 60 urterako alokairua zeukatelako.

Taberna ireki eta urte eta erdi beranduago anaiagaz jarri zen lanean Unai eta azkeneko urtean berak eroan du negozioa,

Igorrek denda ireki du eta. Pozik hartu zuen Unai kargua bere gain. “Jende gaztearentzako taberna zen, lokal batek inoiz edukiko duen paisajearen ikuspegi onenagaz! Hemengo hainbat bezero ireki genuenetik egon dina gugaz. 12 urte denbora asko da eta jendeak faltan sentituko duela esan digu”.

**«Eskerrik asko gugaz egon den jendeari»**

Udalak, bestalde, arazoari irtenbide onik ematen ez diola nabarmendu du tabernariak. “Lursail bat utzi gura digute, gure tabernak bertan eraiki ditzagun; baina 15 urterako besterik ez digute alokatu gura eta, gainera, hilean 1.000 euro ordaindu behar ditugu! Gehienez, denbora tarte horretan taberna eraikitzeko inbertitutakoa ordaindu dezaket, besterik ez”, kexatu da. Beraz, agur esatea erabaki du. “Eskerrik asko gugaz egon den jendeari. Agian, noizbait beste Haizea bat egongo da...” . m



**TXIBERRI  
edantokia  
frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

**BASTARTEA**

URDULIZ

Teléfono: 940 701 120

Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
ALGORTA



**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**VIEJO**

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



## TURISMOAREN GORAKADA NABARMENA GORLIZEN

Gorlizko Turismo Bulegoak, 5.030 informazio eskaera izan zituen pasa den urtean. 2005eko datuekin alderatuta, oporretan etorritakoen kopurua %35ean igo da azken urtean. Gehienak Bizkaiko beste herri batzuetatik etorri dira, hala ere, Herrialde Katalanak, Madril, Andaluzia, Frantzia eta Alemania aldetik ere jende asko hurbildu da. Bestalde, Gorliz Madrileko *Fitur* azokan egon da aurten eta herriari buruzko liburuxka berri bat aurkeztuko du bertan.

## KRISTO SANTUKO ERMITA BERRITZEN DABILTZA

Plentziako Udalak 78.000 euro bideratu ditu Kristo Santuko basiliza zaharbertzeko eta dagoeneko kanpoaldea amaituta dago. Erdi Aroko eraikina da eta herriko garrantzitsuenetakoa. Garai haietan, ohitura zen harresiz inguratutako herrietan, horrelako eraikin bat egotea. Bidaia bat hasi baino lehen Jainkoari laguntza eta babesa eskatzera hurbiltzen ziren erromesak honetara.

## BERDINTASUN PLANA MARTXAN LEMOIZEN

Lemoizko Udalak, Berdintasun Plana abiarazi du. Udalerriko zenbait emakumeri hainbat elkarrizketa egiteaz gain, udaletxeko langileak elkarrizketatu dituzte plana diseinatzeko. Lemoizko alkate Pedro Jesus Botejarak adierazi duenez, bai Udaletxean bertan, baita herrian ere, berdintasuna sustatzeko jarduerasparru eta tresna moduan gauzatu da.

## LEMOIZ

### Kultur gune berria Armintzako eskola zaharretan



Armintzako eskola zaharra

**Dena ondo joanez gero,** kultur gune berri eta modernoa egongo da Lemoizen urtea amaitu baino lehen. Armintzako eskola zaharretan jarriko dute hau eta kultur etxean sartzan ez diren zerbitzuak eramango dituzte honetara.

Eraikina kanpotik eta barrutik zaharberituko dute eta lanak hiru hilabetez luzatzea aurrikusita dago. Argiztapena, instalazio elektrikoa, lurra, leihoak, teilatua eta fatxada aldatuko dituzte, besteak beste. Eraikin barruan dauden komunak bota eta ezinduentzako

egokitutako bainugelak ere egingo dituzte. Zaharbertze lanen balioa 74.948 eurokoa izango da eta erdia Bizkaiko Foru Adundiak ordainduko du.

Oraindik guztiz finkatuta ez dagoen arren, bertan kultura ikastaroak ematea espero dute gunea kudeatuko duten udal arduradunek. Gaur egun, yoga, musika, eskal dantzak eta perkuzio eskolak eskaintzen ditu Lemoizko Udalak, beste askoren artean. Gimnasia eskolak, adibidez, kultur gune berrira eramatea aurrikusita dago. m

# Otsailak 11-26

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### SOPELA

► **Juan Manuel Aresen margolanak.** Erakustaretoa. Otsailaren 18ra arte.  
► **Izan elkartearen argazki erakusketa.** Erakustaretoa. Otsailaren 19tik martxoaren 4ra arte.

### GETXO

► **Olatz Azkueren margolan surrealista.** Erromoko erakustaretoa. Otsailaren 19tik martxoaren 3ra arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.  
► **Diego Tijeroren akrilikoak, olioak eta kollageak.** Algortako erakustaretoa. Otsailaren 19tik martxoaren 3ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

## ZINEMA

### GETXO

► **Cristobal Molon.** Umeentzako zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Otsailak 11, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.  
► **Cinderella Man.** Getxo Antzokia. Otsailak 14, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.  
► **En tierra de los hombres.** Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Otsailak 16, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.  
► **El corral, una fiesta muy bestia.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Otsailak 18, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.  
► **Volando voy.** Getxo Antzokia. Otsailak 21, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.  
► **Gracias por fumar.** Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Otsailak 23, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.  
► **El ratón Polis.**



► Korrikaren Kultur Bira

### Gu ta gutarrak bertso emanaldia Algortan

Musika eta bertsoa uztartzen dituen proiektu polita da Igor Elortzaren eta Unai Iturriagaren *Gu ta gutarrak*. Josu Zabala Hertzainak taldeko kide ohiak sortu ditu bertsoei jarri beharreko doinuak. Korrika Kulturalak antolatutako ekitaldien barruan zazpi bat emanaldi eskainiko dituzte, tartean, Algortako Getxo Antzokian. Aurretik idatzitako bertso musikatuak zein bat-batean inprobisatutakoak tartekatuko dituzte saioan zehar. Eskainiko duten emanaldi bakoitza ezberdina izango da, bakarra; izan ere, ekitaldi batetik bestera, bertso sorta berriak sortuko dituzte. Gainera, saio bakoitzean gonbidatu ezberdinak igoko dira taula gainera: aktoreak, musikariak, marrazkilariak, bertsolariak...

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: otsailak 11 • Ordua: 18:00

Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Otsailak 25, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

### PLENTZIA

► **Nueve vidas.** Nagusientzako zinea. Goñi Portal. Otsailak 16, barikua. 21:30.  
► **La increíble pero cierta historia de Capercucita Roja.** Umeentzako zinea. Goñi Portal. Otsailak 17, zapatua. 18:00.  
► **Noel.** Nagusientzako zinea. Goñi Portal.

Otsailak 23, barikua. 21:30.  
► **Dicen por ahí.** Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Otsailak 24, zapatua. 18:00.

### LEIOA

► **In this world.** Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Auditorium. Otsailak 13, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.  
► **Un franco, 14 pesetas.** Auditorium. Otsailak 20, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **¡Ama quiero ser lehendakari!** Glu-glu. Getxo Antzokia. Otsailak 17, zapatua. Sarrera: 15 euro.

### LEIOA

► **Johnny cogió su fusil.** Funciones Teatrales C. Auditorium. Otsailak 23, barikua. 20:30. Sarrera: 12 euro.  
► **Pido gancho... La historia de Caritos y Violeta.** La Galera Encantada. Auditorium. Otsailak 24, zapatua. 18:00. Sarrera: 4 euro.

## BESTEAK

### GETXO

► **III. Gazta Azoka.** Algortako Geltokia plaza. Otsailak 11, domeka. 11:00-14:30 eta 17:00-21:30.

### BARRIKA

► **Mozorro jai.** Udaletxea. Otsailak 19, astelehena. 17:30.

### LEIOA

► **Kontzertua: Jeronimo Martin Trio.** Cafe Ambigu. Otsailak 16, barikua. 22:00. Sarrera: 6 euro.  
► **Helduentzako mozzorro lehiaketa.** Otsailak 16, barikua. Banaka eta taldeka (gutxienez bost pertsonen osatutako taldeak).  
► **Umeentzako mozzorro lehiaketa.** Otsailak 20, martitzena. Banaka eta taldeka (gutxienez bost pertsonen osatutako taldeak). Umeentzako jolasak Sakoneta kirolegian.

### ERANDIO

► **Habanerak IV. Jaialdia.** Altzaga kirolegia. Otsailak 24, zapatua. 20:30. Sarrera: doan.  
► **Kontzertua: Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Josu Murueta kultur etxea. Otsailak 25, domeka. 19:00. Sarrera gonbidapen bidez.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA





# Getxo haserre

Sano haserre dabilta Getxo aldean Udalaren plan urbanistikoekin. Herriko azken baserri gunea desagertarazi eta 8.000 etxebizitza inguru eraikiko ei dira bertan plan horien arabera. Hilaren 28an honen guztiaren aurka manifestazioan 2.000 lagun inguru atera ziren kalera, gehien-gehienak Getxokoak, baina baita antzeko egoeran dauden beste herri batzuetako lagun batzuk ere, esaterako, Bakio edota Sopelakoak.

Argazkiak: Mikel Martinez de Trespuentes







## Buruhandiak

Betidanik gure jaieran ikusi ditugun pertsonaia groteskoak dira buruhandiak, aldi berean barrea eta ikara eragiten dutenak. Ez dago Euskal Herrian buruhandirik ez daukan herririk. Nork daki noiz hartu zituzten gure kaleak lehenbiziko aldiz! Buru horien azpian, baina, bestelako nortasuna daukaten pertsonak aurkitzen dira: laguna daukazu bat, auzokoa, dendaria, ikaslea... Azken finean, denbora tarte batez beste nonor izateko aukera polita besterik ez da.



[berbetan]

Roberto Laiseka, 37 urteko gizasemea, Gernikan jaio eta Arteagan hazi zen, zazpi urte bete arte. Gero, Algortara ekarri zuten, baina ez zuen Arteagarekiko lotura guztiz galdu: “Txikitan, txirindulaz joaten nintzen han geneukan baserrira, Algortatik”. Etapa anonimo horietan gorpuztuz joan zen Laisekaren txirindularekiko zaletasun itzela, eta azkenik, ezin zitekeen bestela izan, Getxoko Punta Galea taldean hasi zen, huraxe zuelako gustukoan. Garaipenek eta suerteak profesionaletarako atea zabaldu zioten 1994an. Euskaltel-Euskadiko maillot laranja jantzi zuen, eta ez du orain gubi arte erantzi, hamahiru urteko ibilbidea bete eta gero. Berak luze-ago gura zuen, baina ezin. Iazko Giroan zoriza agertu zitzaion errepide erdian; jausi eta haren belaunak agur esan zion lehiaketa profesionalari. Orain, nahikoa du Laisekak bizitza arrunterako belauna ahal bezain ondo berreskuratzea. Urtarrilean esan zion agur bihotz-bihotzez maitatu duen kirolari, baina ez guztiz. Txirindula gainean ez bada ere, bueltatzeko asmoa dauka.

# Roberto Laiseka

## Malko laranjak agurrean

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Lezamara entrenatzera doan umeak, beharbada, Athleticera ailegatzeko ilusioa edukiko du. Aldiz, umetan txirindulaz ibiltzen direnek amets egiten dute inoiz profesional izateagaz?

—Ez, hori desberdina da. Zaletasuna da, gustuko duzun zeozer. Ez duzu pentsatzen txirindularitzan inora ailegatuko zarenik, hobya da batez ere.

—Eta, noiz hasten da norbera pentsatzen profesionala izan daitekeela?

—Zaletu mailan edo... Ni neu, 90eko Bira irabazi nuenean -hura irabazten zuen bigarren bizkaitarra izan nintzen, Julian [Gorospe] eta gero- hasi nintzen pentsatzen profesionaletara pasa nintekeela. Ze, beti, lasterketa hura irabazten zuena profesional egiten zen gero. Hor hasi zitzaizkidan gogoak. Baina badakizu zelan den hau, suertea eduki behar da, talde batek har zaitzala. Eskerrak 1994an Euskaltel-Euskadi sortu zela; hura izango zen nire azken urtea, utzi egin behar

nuen, baina talde hartara hainbat txirindulari igaro ginen. Bestela, horietatik bakarra ez zen profesionala izango.

—Zaletu mailan dabilzanetatik, zenbaterik egiten du salto profesionaletara?

—Orain gehiagok, bizitzako beste arlo batzuetan bezala lasterketetan ere gainbera egon delako. Orain askoz zaletu gutxiago dago lehen baino. Txirindularitza eskoletan, zer esanik ez. Horregatik, orain

entrenatu ostean bat beti egoten da nekatuta. Beste kirol batzuetan, futboleak esaterako, entrenatu eta gero beste zeozer egin daiteke, osteratxoa egin, erosketak... Baina txirindularia, beti nekatuta. Esaten dute jesarrita egotea dela onena, bestela etzanda. Egin litekeen gauza bakarra ikastea da, horretarako balio baduzu eta borondate handia badaukazu. Baina lan egitea askoz gaxagoa da.

### “Txirindulariaren arazoa nekea da; entrenatu ostean, beti nekatuta”

handiagoa da profesional bihurtzen direnen portzentajea. Bostetik bat-edo, baina ez nago seguru, egia esanda.


—Txirindularitzak asko baldintzatzen du bizitza? Zaletu mailan zagozala, gainerakoa utzi egin behar da, ezin da besterik egin?

—Ez. Txirindulariaren arazoa nekea da,

—Bizimodu gogorra...

—Niretzat ez da horrela izan. Txirindularitza hobya izan dut, horixe eduki dut gustuko, eta izugarri gozatu dut lanbide honegatik. Egia esan, ez zait gogorra begitandu.

—Izan ere, diruagatik ez da txirindularitza profesionalean jarduten. Edo bai?





—Ez. Batzuek bizitza segurtatu dezakete, baina oso gutxi. Euskadi osoan, esku bateko atzamarrakaz konta daitezke.

—Erretiratu berri zara. Zer egiten dute txirrindulari profesionalak, profesional izateari uzten diotenean?

—Oraindik nago hanka ahalik eta ondoren gera dadin ahalegintzen; borrokan nabil indar hartzeko, berrosatzeko... Eta ez dut momentuz txipa aldatu, ez dut astirik eduki, hilabete da utzi dudala, eta oraindik denbora beharko dut bizimodu arruntera egokitzeko.

—Hala ere, tropelean zabiltzatenok berba egiten duzue horretaz, etorkizunerako asmoez?

—Niri behintzat, txirrindularitzari lotuta segitzea gustatuko litzaidake. Beste batzuk ez dira berriro txirrindulaz ibiltzen sekula, ez da ezer jakiten haietaz. Ez nuke gura niri hala gertatzea, baina auskalo.

—Orduan, txirrindularitzan segitzeko asmorik bai? Erraz topatzen da beharra hor?

—Ez, oso gaxa da, gaur egun oso urtenbide gutxi dago, talde gutxi... Baina tira, ahalegina egin beharko da.

—Capbretongo egoitza berezi batera joan zinen berrosatzea egitera...

—Hilabete eta erdi eman nuen han. Eta oso pozik nago, han gauza asko lortu ditudalako hanka osatze bidean. Uste nuen ezin izango nuela tolestu, eta orain nahiko ondo toles dezaket. Egoitza oso ona da, uxela halako zeozer balego hemen Euskadin. Kirolean dabilen jendea baino ez da joaten, edozein kirol, nahikoa da federatuta egotea. Eta 150 kirolari zegoen han, hamazazpi fisioterapeuta, sei osagile, psikologoa... eta gainera, Frantziako segurantzaren sozialaren bitartez.

—Hanka osatzera joan zinen beste barik, edo oraindik uste zenuen lehiaketara itzuli ahal izango zinela berriro?

—Nire asmoa berriro lehiatzea zen. Gero erabaki nuen erretiratzea, ikusi nuelako ez neukala hanka behar bezala, hau bezain kirol gogorrean jarduteko. Eta lasterketetan arrastaka ibiltzeko, hobe utzi.

—Inoiz esan duzu, ordea, kolpea igarri

bezain laster pentsatu egin zenuela: “Akabo dena”...

—Bai, bai. Hanka ikusi nuenean, esan nuen: “Honek ez dauka itxura onik”. Gero, medikuek beste zerbait esaten dizute, adorea har dezazun, eta... Baina ikusi nuen ezin nuela hanka tolestu. Ahalegindu naiz segitzen, gurago nuelako txirrindularitza modu honetan ez utzi, baina tira. Hori daukat penarik handiena.

—Komunikabideen aurreko agurrean sano hunkitu zinen...

## “Pena handia izan da, beste urte bi eman nitzakeen txirrindularitzan”

—Bai. Ez nuen holan utzi gura, pena handia izan da. Banekien sasoi onean nenguela, beste urte bi eman nitzakeen txirrindulari, seguru.

—Eta, txirrindulari izanda, ez zenuen etxean gehiago egoteko gogorik? Bidaia asko, lasterketa asko...

—Tira ba. Hogeitaz urte daukazunetik zagoz bueltaka, hara eta hona... Ez dut horren min berezirik eduki, egon behar nintzen beste egon naiz etxean. Itzuli handi baten ostean denerako denbora daukazu, eta negua ere luzea da. Urritik urtarrilera, bost hilabete daukazu hor. Ez dut eduki etxe-ko minik.

—Alderantziz? Hau da, orain gogoan dituzu hotelak, kontzentrazioak, taldekiak egotea...

—Momentuz ez, denboraldia oraindik

## “Dopinaren kontrako kontroletan, geuk ematen dugu positibo gutxien”

orain hasi delako. Baina argi dago lehia hasten denean horren mina edukiko dudala, urte asko egin ditut hor. Han egon, taldekoak afaldu, tertulia... Eta batez ere, lehiaren falta sumatuko dut, beti gustatu zait lehiatzea, edozertan.

—Esan ohi da txirrindulariak zaretela kirolari gogorrenak, beste material batez egindakoak zaretela...

—Esan egiten da baina... Ez dakit ba, kirol bakoitzak bere zailtasunak ditu. Nire ustez gogorrena, beti esaten dut, estropadak dira. Hilabeteko oporraldia daukate, ez daukate soldatarik...

—Zuei gehiago ordaintzen dizute arrunlariei baino, argi dago, baina askoz ahalegin txikerragoa behar duten kirol batzuetan, are gehiago ordaintzen da. Pentsatzen duzue: “Hau bidegabekeria!”?

—Badakizu, auzoa beti egoten da norbera baino hobeto, ezin daiteke ezer egin. Nik

neuk mundu hau aukeratu nuen, eta egia esan behar badut, pozik nago lortu dudana.

—Aukeratu zenuen mundu hori, bide batez esateko, nahaspilatu samar dago azken urteotan, dopina dela eta ez dela...

—Bai, jende asko, komunikabide asko... dabil gure gainera kaka botatzen, ez dakit zergatik. Gu gara, izan, kontrol gehien egiten duten kirolariak, eta positibo gutxien ematen dutenak. Baina jendeak gogoia dauka... ez dakit zeren gogoia daukan egia esanda.

—Positibo gutxien, esan duzu...

—Halaxe da, estatistikei begiratuta. Ezin dizut zehatz esan zenbat, baina baliteke txirrindularitzan milatik gora kontrol egitea urtero. Portzentajeen arabera, positibo gutxien daukan kirola da, alde handiz.

—Zuri ere egingo zizuten bat baino gehiago...

—Bai, urtean hamabosten bat kontrol egokitu dakiok txirrindulari bakoitzari.

—Eta zelan sentitzen zara momentu horretan?

—Hara, jokoaren arauak dira eta horreekaz jokatu behar da.

—Baina baten batek esan du gaizkilea

bailitzan sentitiarazi diotela...

—Kontrol batzuk egiteko modua, egia esan... Esaterako, odol-azterketa egiteko goizeko bostetan atera zaitzakete ohetik, zure etxera joan... Kontrolak egitea gauza bat da, baina hori gehiegizkoa da. Guk geuk ipini izan ditugu arau asko, eta emoten du hori, orain, gure kontra datorrela atzera. Geu gara, eta hori inork ez daki, geure diruaren zati bat kontrolak egin daitezten ematen duen kirolari multzo bakarra. Ez dut uste beste kiroletan egiten denik. Gure sarien portzentaje bat horretarako da, eta akabuan begira...

—Roberto Laiseka txirrindulariaren ibilbidean, denek gogoratzen duten momentua 2001eko Tourrean Luz Ardidenen irabazitako etapa da, uholde larrija batek inguratuta. Hori duzu oro-

tzapenik ederrena?

—Nire momentu gorena da txirrindularitzan, Tourreko etapa garrantzitsua irabazi nuelako taldea Tourrera joan zen lehenengo urtean, eta gure zaleen aurrean. Baina askotan esan dut Cardenasen atzetik bigarren geratu nintzen egunean, irabazi egin nezakeela, azken kilometroa aldats gora izan balitz, eta ez behera. Jendea irabazleaz baino ez denez gogoratzen, bigarrena izateak ez zidan ezertarako balio izan. Baina horretaz, eta beste lorpen batzuez ere, harro nago.

—Tourreko etapa gogor horietan, hogei kilometroko mendatean gora zoaztela, jendez inguratuta, nekea aurpegietsita, zertan pentsatzen duzue?

—Aurrean bazoaz ondo zoaz, pozik eta indartsu. Arazoak atzean dagoz. Hori bai txirrindularitza gogorra, horko sufrimen-

dua askoz handiagoa da. Hilda zagoz, “oraindik hogei kilometroko beste mendate bat daukat aurretik”, pentsatzen duzu, “zelan igoko naiz, hemen bakarrik geratuko naiz beharbada...”.

—Zelan igartzen du txirrindulariak ahulaldia, pajara ospetsua, datorkiola?

—Konturatu ere ez zara egiten. Gasolina barik lotzea bezala da. Bat-batean. Igarri egiten duzu ez duzula jan, ez duzula edan, eta dagoeneko ez dago zer eginik. Suerte baduzu, glukosa azkarra hartzen ahalegin zaitezke, baina horrek ere hogei minutu behar ditu eragiteko. Bestela, Coca-cola bat har daiteke, gorputza irauliko duen pizgarriren bat, baina... Jeneralean, ahulaldia berehalakoa da, primeran zagozala uste duzu eta, halako batean, hutsik geratzen zara. m

Getxoko Andra Mari  
Zerbitzu Estazioa

etxera  
eroaten dizugu  
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km  
Getxo / Tel: 94 430 15 00



altzaga  
ikastola  
erandio bhi

HAUR HEZKUNTZA (2-6)	Garraioa eta jantokia
LEHEN HEZKUNTZA (6-12)	Eskolaz kanpoko ekintzak
BIGARREN HEZKUNTZA (12-16)	


Kukularra bidea, 8 • Tel.HH-LH: 94 467 17 05 • DBH: 94 467 15 13 • Faxe 94 467 09 36 • 48950 ERANDIO



**cianoplan** Reprografia  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •  
Kartelak kolorez eta z/b •  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •  
Fotokopiak kolorez eta z/b •  
Era desberdinetako koadernaketak •  
Plastifikazioak •  
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •  
ermarkaketak •







PLATANOAK BERANGOKO ELIZAN



# Hostoen ostean

Arbola familia handi bi daude: arbola hostoiraunkorrek (artea, eukaliptoia, pinua...) eta hostogalkorrek (pagoa, makala, haritza...). Erreportaje grafiko honetarako hostogalkorretan ipini dugu arreta. Arbolok udan eta neguan daukaten itxura alderatzea otu zitzaigun; hostoek udan ezkututzen dutena erakutsi.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





MAKALAK ALGORTAKO MAKALEN ETORBIDEAN



PLATANOAK GOBELA IBAIAREN ERTZEAN







PLATANOAK ALGORTAN



AKAZIAK URKJJO BASON, ALGORTA







GALEARAKO BIDEA



SANTANA, BERANGO





## zineeskola

Oskar Fernandez

Euskal zinema (I)  
Jorge Oteiza

Orioko eskultore handi eta bikaina zimezale amorratu izan zen gazte-gaztetik. Hainbat eta hainbat proiektu burutu zituen filmak eta dokumentalak aurrera ateratzeko. Pasio handia izan zen zinema Oteizarentzat. Bera, Basterretxea eta Larrukert Iruneke Zineklubaren bazkideak izan ziren. Oteiza hogeitabost urte zituenean, Nikolas Lekuona margolari eta artista banguardistarekin, Teodoro Ermandorenaren *Euskadi* lanaren errealizazioan parte hartzen saiatu zen. Beranduago, berrogeita zazpi urte zituela Euskal Herriari buruzko dokumental handia egitea bururatu zitzaion. Entzun dezagun bere burutazioaren zati bat gai honetaz: “*Francisco Escuderok sortutako eta konposatutako Illeta, oratorioan izugarriko dokumental zinematografikoa dagoela guztiz konbentziturik nago. Oratorio hori ahalmen handiko hazia izango balitz bezala da. Irudi guztiak sartuko lirakekeen filma, non gure herriaren aniztasun izugarria oso osoa kokaturik egongo litzatekeen. Ze afera gure gazteria pizteko, lanaren ilusioan murgildu eta harrapatu, eta gero zine-aretoaren pantailan lurra bera antzezten ikustea!*”. Baina laguntza ekonomikorik ez eta proiektuak ez zuen aurrera egin. Oteizaren ametsa premonizioa baino zerbait gehiago izan zen, bera beste batzuekin batera *Ama Lur* zinema lanaren aholkularia izan zen 1968an. Greziar mitologiaren Acteon pertsonaiari buruz zuen ikuspuntu pertsonala zinemara eramaten ere saiatu zen. Acteon ehiztari mitologikoa zen. Berak, nahi gabe, Artemis, Zeus jaungoikoaren alaba eta ehizaren jainkosa, bainatzen zegoenean biluzik ikusi zuen. Artemisek Acteon orein bihurtu zuen eta bere

## Agian dagoeneko ikusgai

Euskal Herriko zinema areto gehienetan ikus daiteke **Asier Basterraren lehen film luzea**

**Ez dago** zalantzarik, daborduko zine aretoetan ikus daiteke *Agian* film dokumentala. 2003an ozeano zabala zeharkatu eta New York hirira joan ziren hiru musikari, marrazkilari bat eta poeta bat. Bakoitza bere jardunagatik euskaldun ezagunak bertan, euren helburua batik bat hiri amerikarrea poesia eta musika emanaldiak eskaintzea zen. Esperientzia hartatik jaio zen *Zaharregia, txikiegia agian* ikuskizuna, Euskal Herrian ikusmin polita eragin zuen ekimena.

Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal, Mikel Valverde eta Kirmen Uribe protagonistek zelatari fina izan zuten ibilbide osoan zaintzaile: Arkaitz Basterra Zalbide (*Zornotza*, 1975) laguna. 120 orduko materiala batu eta 81

«K. Uribe, M. Valverde,  
M. Urdangarin, Rafa Rueda eta  
B. Mendizabalen begiradak»

minutuko dokumentala zuzendu du zornotzarrak, “hitza, musika eta irudia” baten dituen *Agian* filma.

Film hasieran Kirmen Uribek hurrengo gogoeta edo itauna egiten du: “*Munduan dauden 700.000 bat euskal hiztunak New Yorkeko auzo batean sartzen dira;*



Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen lehenengoz

*beraz, zer dauka auzo baten sartzen den komunitate batek eskaintzeko munduari...?*”. Urruneko hiriko egonaldian bizitakoan ostean, eta ondorengo ekimena bera, galdera erantzuteko saiakera izan ziren. Urdangarinek filmaren aurkezpenan adierazi zuenez “*penstazeko 5 modu bildu ditu*” Basterrak dokumentalean. Adiskidetasunaz, hizkuntzaz, maitasunaz, bizitzaz... dihardu zornotzarraren lehenengo film luzeak; mundu beraren osagari litzkeen begiratzeko bost modu desberdinen ikuspegitik. m

## Ez galdu &gt; “North Country”

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: otsailaren 16a, barikua • Ordua: 22:00 • Zinema Paradiso



Hauxe da Zeelanda Berriko Niki Carok zuzentzen duen hirugarren film luzea. Lehenengoa *Memory & desire* (1997) izan zen eta bigarrena *Whale rider* (2004). Bere azken lanarekin erradiografia eta hausnarketa soziologiko oso interesgarria proposatzen du egileak. Kontatzen duen istorioa benetako gertaera batean oinarritzen da. Protagonista senarrarengandik banatu eta gero –bere bikotekidearengandik tratatu txarrak baino ez du jaso– bere bi semeekin jaioterrira itzultzen da, Minnesotako iparraldera. Baina herrian aitaren desadostasunak, genero diskriminazioak, jazarpen laboralak eta era guztietako ezbeharrak sufritu behar izango ditu aurrera atera ahal izateko. Protagonistaren papera Charlize Theron aktoreak era bikainean antzezten du. Zer esanik ez, forumerako oso pelikula interesgarria da *North country*.

## Jazz eta blues zirkuitua

Kultur Leioako Cafe Ambigun egingo dira kontzertuak, hil honetan eta hurrengoan



De Diego Brothers taldea

**Bigarren** urtez jarraian, Bluesjazz zirkuituak Leioan izango du geltokia hurrengo hilean. Eskualdeko udalerrian ez eze, Basauri eta Zornotzan ere eskainiko dituzte kontzertuak zirkuituko musika taldeek. Horren albotik, aipaturiko herrietako udalez gainera, Aldundia eta Errabal Jazz zigilua dira kontzertu biraren antolatzaileak.

Hiru taldek jardungo dute Kultur Leioako oholtza gainean; lehenengoak, De Diego Brothersek, eskaini du dagoeneko kontzertua eta hurrengo emanaldiak otsail honetarako eta martxorako iragarri dituzte. Jeronimo Martin

Trio hirukoteak hilaren 16an jardungo du, eta azkenik, Bartzelonako Julia Valle Quintet taldearen txanda martxoaren 23an izango da.

Zuzeneko blues eta jazz kontzertuez gozatu gura dutenek Kultur Leioako Cafe Ambigun dute topagunea gaueko 10:00etatik aurrera. Emanaldi bakoitzeko sarrerak 6 euro balio du, eta arduradunek jakinarazi dutenez, ordainsariagaz edari bat hartu ahal izango da.

Pasa den urtean kontzertu bakoitzeko hurreratu ziren ehun bat lagunengatik mugatu gaituzte da antolatzaileen aurtengo helburua, datozen urteetan ere ekimenari jarraipena emateko asmoz. m

## diskoak

**Ghatusain**  
Gathusain  
Autoekoizpena



Euskal Herriko musikaren tradizioan arakatu duen taldea da Ghatusain. Herri folklorea lantzen dute, baina euren konposatutako abestiak dira nagusi estreinako lan honetan. Taula gainean talde handia izan arren, bertoko zein atzerriko pertsonaia entzutetsuen kolaborazioak eduki dituzte diskoa osatzeko: Alan Griffin, Jon Maia, Estixu Fernandez...

**No promises**  
Carla Bruni  
Naïve



Lehenbiziko lana kaleratu zutenetik bost urte igaro dira, baina daborduko iritsi da Italiako modelo ohiaren *No promises* bigarren diskoa. Oraingoan frantsesa albo batera utzi eta ingelese hautatu du abesteko. Erabilitako letrak, berriz, XX. mendeko idazle handien testuetatik ateratakoak dira: Yeats, Dorothy Parker, Emily Dickinson, Christina Rossetti...

**Zera**  
Zera  
Hirusta Records



2005ean, Deban, Peli Markiegi poetari bere jaiotzaren ehungarren urteurrenean egindako omenaldi hunkigarrian hasi zen honako disko hau gauzatzeko. Egun horretan, Peliren olerkiak egindako hainbat kanta abestu zituzten Miquel Saumellek eta Jokin Lasak, baita bere antzerki obrak antzeztu ere. Elementu horiek guztiak kontuan hartuta, diskoa osatu zuen Zera.

## Bide Ertzean &gt;

Non dira



*Non dira*  
(Gaztelupeko hotsak) diskoa plazaratu zuen iazkoaren amaieran Bide Ertzean taldeak. 13 abestiz osatutako lanak 36ko gerra dauka oinarri, hobeto

esanda, orduko desagertuak, fusilatutak, desagerraraziak, erbesteraraziak... eta haien ondorengo bizipenak; oroimena berreskuratze aldera. Deabruak teitlatuetan taldearen irtenbide akustiko moduan sortu zen 1998 aldera Bide Ertzean, eta “bazerreko” ibilbidea hasi zutenetik, azkenengo lan honeguz doza erdiko otzara bete dute dagoeneko: *Bide Ertzean* (1998, maxiCD), *Zure minari* (1999), *Grisa* (2000), *Maite Out* (2002), *Esan Bare* (2004) eta berbagai dugun *Non dira* (2006).

[www.bidertzean.com](http://www.bidertzean.com)

## Pop Rock &gt;

Lehiaketa Leioan

Hilaren 25ean amaituko da Leioako Pop Rock lehiaketarako lanak bidaltzeko epea. Ohi legez bi arlo daude: Pop Rock saila (rock & roll, power, pop, garage, ska, reggae, psikodelia, punk rock, stoner, noise, rap R&B, techno pop, hip hop...) eta Metal atala (heavy, thrash, death, doom, hardcore...). Taldeek gutxienez 5 kantez osatutako CDa bidali beharko dute Kultur Leioara. Martxoaren 23an jakinaraziko dituzte finalera (maiatzak 11-12) igaroko diren 6 taldeen izenak. Sari nagusia 1.800 euroko da, baina beste sari batzuk ere banatuko dituzte.

Informazio gehiago: 94 607 25 70



etorri  
eta  
ikusii!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

### Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako Anbulatorioa

**otsailak 19**

Erredentor eliza  
**otsailak 20**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404

**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Andrazkoen idatzari argia

Zortzi euskal idazleri egindako elkarizketek osatzen dute **Ana Urkizaren** liburua

**Euskal literaturgileak.** Andrazkoak. Zenbateran isolatuak. Hasier Etxeberriak plazaratutako *Bost idazle* (Alberdania, 2002) liburua aurkeztu zenean, ez genuen generoaren izenondorik adierazi beharrik edozelako artikuluetan. Eta *Zortzi unibertso, zortzi idazle* (Alberdania, 2006) liburuak ere ez luke behariko; zoritxarrez, gaur egun beharrezkoa dauka. *“Badakigu bostak gabe, XX. mende bukaerako euskal literaturak ez zukeela musika bera izango, XXI. mende hasierakoak ere ez”*, zioen Etxeberriaren liburuaren aurkezpenak. Hala, zer litzateke euskal literaturaren musika emakumezko ahots barik?

**«Zortzi unibertso, zortzi idazle “ikusezina azaleratzeko” saiakera»**

Liburu barrunbean generoa galtzen du idazlearen ni poetikoak, baina egile-sinadura aurpegiduna da beti, eta horri zor zaizkio lana eta merezimendua; genero, arraza, jatorri... bereizketa barik.


Ana Urkiza idazleak (Ondarroa, 1969) iaz kaleratutako *Zortzi unibertso, zortzi idazle* saiakeran hurrengo zortzi euskal idazleei egindako elkarrizketa



Ana Urkiza

bana batu ditu: Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947), Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962), Itxaro Borda (Baiona, 1959), Mariasun Landa (Errenteria, 1949), Lourdes Oñederra (Donostia, 1958), Aurelia Arkotxa (Baigorri, 1953), Laura Mintegi (Lizarrar, 1955), eta Yolanda Arrieta (Etxebarria, 1963). Zortzien artean 80tik gora literatur lan argitaratu dituzte; Urkizak esan legez, *“argitaratu dute, arazorik gabe, gainera, baina argitaratutakoari gero ez zaio behar bezala erreparatu”*. Urkizaren lanaren helburu nagusietako bat “ikusezina azaleratzea” izan da. Hala ere, bere ekimena askok ikusten ez dutenaren lagina baino ez da. m

liburuak



**Portukoplak**  
Kirmen Uribe  
Elkar

Itsasoagaz lotutako kanten eta poemen antologia pertsonala egin du Kirmen Uribek. Kantu zaharrez hasi eta XXI. mendeko poemakaz bukatu du liburua: bertsoak, bertso-jarriak, poema errimatuak, askeak, kantak... Mikel Valverderen marrazkiak dauzka lan berriak.



**Apaizac obeto**  
Jon Maia  
Elkar

XVI. mendean euskal arrantzaleek Kanadan egindako balearen arrantza gogorarazi zigun ekainaren 5ean Pasaiatik abiatu eta Temuara iritsi zen espedizioak. Bidaia hartako protagonistako bat izan zen Jon Maia bertsolaria eta orduan bizitakoa idatzi du liburu honetan.

[kirola]

## Getxoko kirol plana

Udalak kirol esparru bakoitzean **Getxo** izenagaz lehiatuko den **talde bakarra** sortu gura du



Arraunean honezkero aurrera atera da Udalaren asmoa

**Getxoko** Udalak bi legegintzalditarako (1999-2007) Kirol Plana osatu zuen, eta epea amaitzean eman du egindakoen eta egitekoen berri. Plana 3 zutabe nagusitan banatzen da: azpiegituren egokitzapena eta handitzea; eskola kirola eta kirol eskolak; eta Getxo izena edo kirol-marka sortzea.

Kirol zinegotzi Guzman Aranagaren esanetan azpiegituren hobekuntzak nabarmenak dira: Fadura (330.000 metro koadro) zelaiak, pilotalekuak, igerilekua, eta abar zaharberri, Gobela kiroldegia altxatu (27.000 metro koadro), Arrigunagako skate-pista konpondu, arraun pabilioia eraikitzen dabilza...

Bigarren zutabeari dagokionez, Aranagak adierazi duenez, *“udalerrian kirol jardueraren %80 federatua zen, lehiaketei beginakoa; ez zen kirola jolas-jardueraren legez ia lantzen”*. Hala, herriko kirol taldeak, Getxo Kirolak eta Ikasleen Guraso Elkartekaz batera eskola kirolari bultzada eman dio Udalak. 5-7 urte bitarteko txikiei zuzenduta, hil bakoitzean kirol baten gainean jarduerak antolatzen dituzte; horrela umeek kirol desberdinak ezagutzeko aukera

daukate, jolasteko eta ikasteko aukera: futbola, saskibaloia, esku-baloia, txangoak mendira, patinatzeria, eskiatzera... Hurrengo ikasturtean 8 urtetik gorakoentzat kirol eskolak ipiniko eizitu martxan Udalak; kirol gogokoenean sakontzeko aukera emateko.

**«Azpiegiturak, eskola kirola zein kirol eskolak, eta Getxo kirol marka dira planaren hiru zutabeak»**

Azken zutabearen inguruan, kirol esparru bakoitzeko Getxo izena daroan talde bakarra sortzea da Udalaren asmoa. Aranagak dioenez, *“elkarren artean mokoka ez ibiltzea dakarke eta baliteke emaitzak hobetzea”*. Arraunean egin dute, eta litekeena da beste 24 kirol talde ere halaxe izatea. Arrozeta sor liteke esparru berean zenbait talde dabilenean, talde bakarra sortu behar luke. Ados ez dauden taldeek *“nork bere ibilbideari eutsi behar dio”* Aranagaren ustez, diru-laguntza eta azpiegituraren bat erabiltzen jarraitu ahal izango badute ere, *“udalak Getxo izendun taldeei emango die bultzada”*. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA**  
**Kirol moda**



**350** M<sup>2</sup>


KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO**  
**KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC

**Lacorfris**.s.l.



• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
• 3 HILABETEKO GARANTIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



**Jesus Mari Lazkano** > margolaria

“Nire margoak gizakiaz berba egiten du, nahiz eta pertsonaiarik ez agertu”



Jesus Mari Lazkano bere estudioan lanean

Jesus Mari Lazkano bergararra da izatez, baina Urdaibaiko bihotzean dagoen Arteaga herria aukeratu zuen aspaldi bere estudioa eta etxea ipintzeko. Gogor behar eginez bere lekua egin du artisten munduan eta ez bakarrik Euskal Herrian; besteak beste, New Yorken eta Erroman ere bere lana ezaguna egiten zaie. Orain dela gutxi, enkarguz egindako bere koadro bat eskegi dute Kultur Leioako harreran.

—Errealismoa lantzen duzu zuk.

—Egia esateko, oso gaxa da artista baten lana berba zehatzak erabiliz deskribatzea. Errealismoaren kontzeptua, gainera, oso zabal da eta ezaguna den erreferente batez (errealitate, margoa, paisajea...) antza duen lanak biltzen ditu bere baitan. Nire lana modu orokor batean kokatzeko balio du, baina definizioek pintura mugatzen dute oso.

—Beti margoztu duzu estilo horretan?

—Hirien inguruko serieak egin ditut gehienbat. Arkitektura oso garrantzitsua da nire lanean, baina, aldi berean, gero eta handiagoa

da paisajearen garrantzia. Margotzerako orduan, berriz, arestian aipatutako errealismoa erabiltzen dut, baina berezitasunakaz. Hasieran, agian, pintura klasikoagaz harremana estuagoa zen. Denboragaz, ordea, argazki zuri-beltzakaz lotura handituz joan da eta Italiako klasikoaren ikuspegia berreskuratu dut. —Zergatik margotzen dituzu eraikinak?

—Nire margoak gizakiaz berba egiten du, nahiz eta pertsonaiarik ez agertu. Arkitektura edo paisajea eraiki dutenen inguruan aritzen naiz.

—Eraikinak beste kontestu batean jartzen

dituzu, ezta?

—Leioan ipini duten koadroagaz egin dudana da hori. Artatzako parkean gaudela ematen du, baina jauregia egon beharko lukeen lekuan kultur etxea dago orain. Translazio moduko bat da, geografiagaz jolastea... Hau da, geografia berria eraikitzea ezagunak diren elementuak erabiliz. Horrela, ikuslearengan sentipen arraroa eragitea lortzen duzu: ezaguna zaizun leku batean kokatuta zaude, baina eraldaketa txikiakaz.

### «Geografia berriak eraikitzen ditut elementu ezagunak erabiliz»

—Margotzen dituzun etxeak argazkian bakarrik ezagutzen dituzu...

—Argazkian bakarrik ez; hori lanaren zati bat besterik ez da. Lekuak eraikinak altxatu baino lehen zelakoak ziren, arkitektuaren planoak, mapak... interesatzen zaizkit. Horrek kontestu batean kokatzen nau. Bertatik-bertara ez ikusteak errealitatea modu askeago batean manipulatzea ahalbidetzen du. Behin erakusketa eginda, lekuak bisitatzen ditut.

—Berba egiguzu Leioako koadroaren inguruan.

—Mota horretako enkargu bat jasotzen duzunean, edonolako koadro baten aurrean ez zaudela konturatzen zara. Erabakigarriak diren elementu bi eduki behar ditu zure lanak: alde batetik, Leioako bizilagunek irudia euren aurrean egin behar dute, herriagaz identifikatu eta, bestalde, kultur etxe batean eskegita egoteak sinbologiaren beharra ematen dio. Elementu horiek guztiak kontuan hartuta, geografia posible bat eraiki dut, identifikatzeko oso erreza diren gauzakaz: Artatza, Oteizaren eskultura... Gustatu ala ez, ikusleak badaki Leioaren inguruan lan egin dudala. m

**Esakere** > “Aitaren ta semearen, ze ikusteko yaio garen!”



Irudia: Gorka Vazquez

Gaur egun nongure ikusten doguz aldakuntzek eta barrikuntzek gure gizarten, eta kasik gehien igerriten doguz tradiziño handikok direzen gauzatan, baserriko bizimodun kasu baterako. Ondiño ikusten direz baserriko kortatan behiek, txahalak, astoran bat... bai ta ardiran batzuk eta ollok ingiruko bedarratan. Baia beste ganadu batzuk bere hasi gara ikusten aspaldi honetan gure baserriren. Irudixuko hegazti handi hori, esate baterako. Ze hegazti ete da, baia?

Esakeratu hau I. Gillsastin *Berba lapikokoa* liburu ederratik atara dogu.

Gure **berbakere90**

Testua: **Xabi Bilbao**

## ZELAN ESAN Berbetari lagunduteko (3)

Berbakere 83n eta 86en alkarrizketa erdiko berba eta esakeratu batzuk ikusi genduzen, berbete erraztuteko eta lagunduteko erabilten direnenak. Gaur aurrera egingo dogu era horretako berbakaz.

### Beste baten eritxi edo berbak esaten direzenen

Batzun **eritxi** da hau holan dala.

Batzuk **pentsaten daude** hau holan dala.

Batzuk **esaten dauden / diñauden lez**, hau holan da.

### Norberak ikusi ez dauen zeozen ganera berba egiteko

Australiara yon **ei** ziren biziten.

Australiara yon ziren biziten, **aiez**.

### Norbera zeozen ganera seguru ez daunen

**Itxure emoten dau** gosez etor direzela.

**Pentsa lei / leite** gosez etor direzela.

Goseaz etor direz, **antza (danez)**.

**Segurun bere** gosez etor direz.

### Kontrasten dauzen gauzek esateko

Hori holan da, **baia** ez beti.

Hemen danatarik lar deku, baia hor, **ostera**, lar gitxi.

Egi diñozu, **baia halan ta bere** ez gagoz konforme.

Hori diño berak, **baia halan ta duzti** ezin gara konforme egon.

### Adibidek

—*Jakitun batzuk esaten dauden lez, gero ta berotasun handiau aukiko dogu bai negun eta bai uden, baia halan ta bere negu eztau otsok jaten, freskure ederra pasaten gabilteaz aurten!*

—*Pentsa lei egarri handi dakarrela horrek morroiek: eztaude sekulen bere ardau ez dan besterik edaten, baia gaur ostera tragu ederra emon daute botijuri!*

—*Australiara yon ei ziren biziten, baia halan ta duzti ezin eskapa euden tabernatan 40 printzipalak entzutetik.*

—*Alkate barri eleju daude ta saltuke hasi direz beran alderdikok, segurun bere gauza handik egingo dauz herrintzeko.*

I  
Iñaki  
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-  
ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



Errotalde  
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalbokoia

## Orburuak

Probentzako erara

**N**eguan, hau da, sasoi honetantxe bere unerik gorenean egoten dira orburuak edo alkatxofak. Probentzan prestatzen dituzten erara egingo ditugu gaurkoan. Hasteko alkatxofak ondo zuritu eta bihotzak ur gazitan egosi, ordubetez edo. Bestetik saltsa egingo dugu. Txalotak ondo txikitu eta su ahulean gurinean potxatu. Ondoren irina apur bat bota eta eragin. Gero alde zurririk apur bat urgabetutako ardao zuria, esnegaina eta okela salda gehitu. Eduki hau guztia sutan saltsa loditu arte, ordu erdiz gutxi gorabehera. Zartagin batean pernil zatiak urreztatu eta ondoren aurretik egositako orburuak bertan salteatu. Amaitzeko egin dugun saltsa gainetik bota. Kitto. On egin! <sup>m</sup>

### osagaiak (lagun birentzat)


dozena bat orburu • lau txalota • gurina • basobete ardo zuri • esnegaina okela salda apur bat • pernil punta bat



itsaso arana / jolastokikoa

## Gewürztraminer

**E**uropa erdia aldean ospe handia daukan mahatsa ezagutuko dugu. Gewürztraminer alemanez pikante edo espeziadun adierazi nahi du eta horrela ere definitzen dira mahats honek egindako ardaoak. Aleak txikiak eta arrosak ditu eta ardao zurien artean ardaorik koloretsuenak ematen ditu. Oso perfumatuak izaten dira eta batzutan moskaletarekin ere nahasten da. Adituen arabera, fruta tropikal eta lore aromak dakartza gogora, esaterako, bioleta, arrosa edota guaiaba. *Gewürztraminer* mahatsa bere indar alkoholikoagatik nabarmentzen da, 14 gradutaraino hel daiteke eta. Garraztasun gutxiko ardaoak ematen ditu, beraz, zahartzeko batere gokiak ez direnak. Frantziako Altsazian erregina da eta mundua osoan ezagunak diren ardao zuriak egiten dira han. Alemanian (Renanian) oso preziatua da eta Riesling estimatuak aberasteko ere erabiltzen dute. Austrian ardao zuri oso freskoak egiten dituzte eta baita mahatsa behar baino gehiago ondu eta gero, ardao gozoak. <sup>m</sup>



## La estacion de chocolate

Etxeko txokolate gozoa giro epelean



Dalia Roman eta Monica Ortega

**Bidezabaleko** betiko txokolategia, hori da hain zuzen ere, *La Estacion de Chocolate*. Denbora luzez itxita egon ostean, Monica Ortega algortarrak eta Dalia Roman zarautarrak, martxan jartzea erabaki zuten orain dela pare bat hilabete. Atontze lanetan jo eta ke ibili dira eta hil honetan irekitzeko prest egongo da.

Metro geltokiaren ondoan dago eta betiko txokolatearen gotorlekua izango da, hortik izena: "Oso zaila da betiko etxeko txokolate gozoa eskaintzen duen taberna bat aurkitzea inguruan. Guk aukera hori eman nahi dugu". Baina ez da hori eskainiko duten bakarrik. Pintxoak, gozariak, txurroak, infusioak eta beste gauza asko ere izango dituzte. Uda garaian, txokolatea zuku eta irabiakiek ordezkatzeko dute, "gariaian ga-

*raikoa*". Gainera, nahi izanez gero, telefono bidez erreserbak egiteko aukera egongo da.

Adin guztientzako aproposa den txokoa da "edadetuak, umeak... edonori gustatu ahal zaio txokolate bero bat gozatzea". Monicak Vicente Ferrer Fundazioarekin lan egiten du eta, urtero behin, elkartasun jai bat antolatzea pentsatuta daukate: "Egun berezi bat izango da. Bildutako diru guztia, Indian burutzen ditugun garapen proiektuetarako izango da". Helburua taberna bat baino zeozer gehiago izatea da, "jendea sensibilizatzeko bide bat".

Orduetgia: goizeko 8:00etatik gaueko 10:00etara. <sup>m</sup>

**Bidezabal 8**  
Tel.: 94 430 22 12

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

## Asador



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua
- astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

**Aretxondo 14**  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi**  
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**KONTXI**  
ZUZUBISKAR

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**G** gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01





**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria  
etxean jaso  
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]

**URA**

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Katarroa badaukazu hau hartu, buruko minarentzako beste hori, tripetako minarentzat beste hura... Ene bada! Botikaria ematen duzu! Inork ez al dizu esan automedikaztea txarra dela? Kontu handiz ibili behar duzu sendagaiakaz.

**AITZURRA**

t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Zein pozik zabilzta alboan daukazun horregaz! Zeuen arteko mutur salda ondo baino hobeto konpondu duzuela argi dago. Baina kontuz ibili! Aste honetan eztabaida asko eduki ditzakezu-eta, ondo esandakoak txarto hartuko dituzulako.

**GARIA**

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Usteak erdi ustel. Ilusio handia egiten zizun, baina gauzak ez ziren gertatu zuk imaginatu legez. Hobe duzu ezer ez imaginatzea eta gauzei bere bidea egiten utzea, gehigo goxatuko zenuke. Ez zara azial!

**META**

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Sasoian zaudela uste duzu. Hala ere, sabeleratzen dituzun patata frijitu, otarteko eta pizzek ez dizute batere onik egiten. Zure sabalak dagoeneko larrialdietako deia egin du. Ez duzu barazkijale bihurtu beharrik, baina...

**OTSOA**

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Ez zara inoiz isiltzen... Ez al zara konturatzen ingurukoak aspertzen dituzula? Neka-neka eginda daude zure berba jarria entzuteaz. Atsedena hartu, txistua irentsi eta besteak entzuten ikasi, edo behintzat saiatu!

**HOSTOA**

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Uda itzalaren bila ematen dozu, negua eguzki-izpien zain, udagoiena arbolak noiz berdetu ixtoiten eta udaberria baso marroiak irudikatzen. Kontxo! Sasoian sasoiak! Hori ulertuz gero ez zinateke beti hain pipertuta ibiliko!

**LASTOA**

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Ez dira betiko garai onenak. Ondo dakizu zuk hori. Beraz orain daukazuna ondo goxatu, eta denbora ahalik eta gehien apobetzatu beharko duzu. Datorrena datorrela, momentu onenen oroitzapena betiko gordeko duzu-eta.

**HAZIA**

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Mosu eskale izan zara, baina pazientzia bako (jardun horretarako beharrezko ezaugarri). Eginahal handiak egin dituzu, gutxiago eta irmoak izan balira... Emaizak agerian uzten du okertu zarela, edaten besterik ez dituzu busti musturrak!

**ADARRA**

t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Gezurtero! Parranda egiteko gogorik ez zenukela esan zenuen. Hala ere, praka berriak eta alkondara jantzi eta goizeko ordu txikitetan itzuli zinen etxera. Ez dago lagun zaharraz irteera baino gauza hoberik, ezta?

**EGUZKIA**

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Erraz sorgindu zaituzte haren begiek, eta irribarre egin bezain pronto, gura duena egiten duzu zuk. Zubitik behera zeure burua botatzeko eskatuko balizu, zuk halantxe egingo zenuke? Izan zaitze zu zeu.

**IRATZEA**

t



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Beti oporrak buruan, beti erdi oporretan. Jaiegunak dira zuretzako egunik onenak, eta lanegunak oporrak prestatzen ematen dituzu. Redio! Ardura baten bat hartzeak eta behar apur bat egiteak ez dizu txarririk egingo.

**NEGUA**

t



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Zenbat bider esan dizu amak arropak plantxatu barik ez iriteko? Zelako ixurak! Zertarako balio du halako gauza karuak erostea gero edozein moduan erabiliko badituzu? Estiloa apur bat jagon mesedez...




**mungia**  
oKINdegia

*Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



**LUMA aldizkariaren eskutik**

**Ezker eskuin**


1. Ipar Euskal Herrian, aurreratua. 2. Gipuzkeraz, usain. Eite. 3. Ugari, oparo. 4. Gipuzkoako itsasertzeko herri batekoak. 5. Oinaze. Ziatu aditzaren oina. Idi, hitz elkartzeetan. 6. Lehen letra. Abizenaren hasiera. Gune beheeratu. 7. Plaza joko ezaguna. Otomanoen lehen ministro. 8. Preposizio latindarra. Olerkaria. Bokala. 9. Mila gramoko pisu neurria. 10. Zintzoa. Kasik. Ezker Abertzaleko erakunde ohia.

**Goitik behera**

1. Berez, giza laguntzarik gabe dabil. 2. Dagoen ontzia irauliz edo makurtuz jarioarazi. Jainko eskandinaviarra. 3. Luma horiberdexkako txoriak. Musika nota. 4. Pertiako behialako errege batzuen izena. Oparo. 5. Bat. Laga. Oinarizko janari. 6. Ipar, ugari. Nafarroako herria, Bortziritan. 7. Ikatz mota. 8. Tiki, ttipi. Gizon izen arabiarra. 9. Irauli. Osmioaren ikurra. 10. Bokala. Antzezleak.

**Soluzioak**

K	S	A	V	A	V	I	A	V	N	O
A	O	M	A	R	A	G	O	T	I	K
E	A	T	E	P	O	E	D	I		
R	I	S	I	B	I	V	K	O	T	
O	L	U	Z	I	B	A	B	A	V	
T	I	A	V	Z	N	I	M			
K	A	R	A	R	O	T	R	I	O	
K	U	T	U	S	N	H	T			
Z	N	V	I	V	S					
A	I	N	A	N	I	Z	I	N	A	



asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Aguraindarra
- Oso oso punkia
- Gatillazo taldeko kantaria

> Aurrekoaren erantzuna: Juan Martinez de Irujo  
> Irabazlea: **Cristina Jauregi (Getxo) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidalitako erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:


UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

*Argia* astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



• Freexkue liburua

www.argia.com



PERU GARATEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

**Escuela Vasca, 1935**

**Gutxi iraun zuen** Algortan egon zen Escuela Vascak. Batzoki zaharrean hasi zuen bere ibilbidea 1933an. Batzokia orduko eta gaurko Aristegi familiaren botikaren aurrean zegoen, Basagotiko etorbideko 67an. Handik etorbide bereko 76. zenbakira aldatu zen gero, gaur egun ere zutik dirauen etxearen beheko solairura. Hantxe dago aterata goiko argazkia. Eskola hartan haurrek euskaraz (eta gaztelaniaz ere bai) talde mistoetan ikasten zuten. Baina laster etorriko zen Francoren altxamendu faxista eta 1936an eskola itxiarazi zuten. Bestetik esan behar dugu, argazkian taldeko haur bi falta direla: Javier eta Peru Garate anaiak. Azken honek hain zuzen ere, utzi digu goiko argazkia. <sup>m</sup>

**Goian:** Angel Ribera (GB), Javier Zulueta (GB), Iñaki Aretxabala, Gotzon Lauzirika, Juan Mari Hernani, Luke Sagastasoloa (Ermuko andereñoa), Angel Velez, Karmelo Zabala, Jose Inazio Salaberri (GB), Teodoro Zabala.

**Erdian:** Vidal Isasi, Javier Azillona, Raul Gorroño (GB), ?, Juan Elorriaga (GB), Jose Mari Emaldi, Serafin Lauzirika (GB), Juan Angel Uriarte (GB), Carlos Gorostizabal.

**Behean:** Jose Luis Mintegi (GB), Katxi Mintegi, Mikel Azillona, Joseba Elorriaga (GB), *Munitis*, Imanol Garate, Joaquin Garate (GB), Sabin Olabarria, Roman Intxaurtieta (GB), Jon Uriarte, Felix Estankona (GB).



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria



[aitormenak]

**KIRMEN URIBE** > Idazlea

# “Uste dut poetok mamuak ere bagarela”

Testua: **Maitane Nerekan**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Gizon lasaia.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

*Shrek*. Oso gustukoa dut filma hori. Gainera, uste dut poetok mamuak ere bagarela.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

*Bernat Etxepare*, euskaraz zerbait argitaratzeko ideia eduki zuelako.

**Ohitura txarren bat?**

Etxetik kanpo gozaltzea.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Goikoa ere bizio bat da. Orokorrean ez naiz oso biziosoa, baina bat esatekotan... lanpernak.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Bai, New Yorkera. Uste dut neure buruarekin aurkitu nintzela han.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Luzaroan bizitzea maite dudan jendearekin.

**Ikusi duzun azken filma?**

*Agian*, Arkaitz Basterrarena. Ikusten dudan bakoitzean gehiago gustatzen zait.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Maitasunik gabe.

**Goiza ala gaua?**

Goiza, goizean gauzak hobeto ikusten direlako. Gaueko pentsamenduek ez dute ezertarako balio.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Esango nuke nire txoko kuttuna Bilbo dela. Ez dakit, Bilbon gustura sentitzen naiz, iruditzen zait hiri bizia dela.m

**LABURREAN**— Ondarrutarra. Euskal Filologia ikasketak burutu ondoren, Literatuta konparatua ikasi zuen Italian. Entseguak, ipuinak, poemak eta komikiak atera ditu eta proiektu berritzaile askotan parte hartu du Mikel Urdangarin eta beste lagun batzuekin batera. Bi aldiz jaso du Becerro de Bengoa saikaera-saria eta 2002an Espainiako Kritika saria irabazi zuen, *Bitartean heldu eskutik* poesia lanarekin. Estreinatuta berri den eta *Zaharregia, txikiagia agian* lanean oinarritutako *Agian* filman parte hartu du eta oso gustura dago lortutako emaitzarekin. Rafa Rueda, Bingen Mendizabal, Mikel Valverde, Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribek berak AEBetan zehar egindako bidaia kontatzen zaigu filmean.

2 ETA 3 URTEKO UMEAK MATRIKULATZEKO KANPAINA

